

...eta kitto!

25 urte

e
s
k
e
r
r
i
k

asko

**Berritu itzazu zure
ukipen lenteak eta
aurreztu %55**

- + 500 ml.-ko 2 likido kutxa
- + portalenteak
- + eguneroko lenteak opari

* konsultatu itzazu kanpainaren
ezugarriak optikan.



Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



LANTALDE PROFESIONAL

BIKAINA, IZEN-ABIZENEKIN

ZERBITZU INTEGRALA



AKREDITAZIOAK

Antonio Murillo

Doktorea
Hezur Birsokuntza eta Ehun Bigunen Maneiuko Zuzendaria.
Leidako Unibertsitatea eta Madrilen.

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.

Inplantologia Masterreko Irakaslea.
Leidako Unibertsitatea.

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
Salamanca Unibertsitatea.

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua

Madrilgo Unibertsitate Konplutensean, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, eta Sevilla, Bartzelona, Almeria, Lleida, Malaga... Unibertsitateetan.

Ainhoa Zulueta

Doktorea
Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian.
Leongo Unibertsitatea.

Aho Kirurgian Diplomataua.
Bartzelonako Unibertsitatea.

Hortz-Estetikan Diplomataua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutensean.

Hortz-Estetikan Diplomataua.
Autran Institutua. Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso doktorea.



MUTUA ETA ASEGUROAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

...GALDETU!

TELEFONO BIDEZKO ARRETA



URGENTZIAK
24 ORDUTAN,
688 608 142

Urgentzietako Kostu Gehigarria.



ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara
zapatuetan:

10:00etatik 14:00etara

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA

Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU!



ESKAINTZA BEREZIAK

Jarraitu urte osoan gure sasolian-sasoiko promozioak.

Abantaila ekonomiko handiak eta bestelako aukera odontologikoak.

Aprobetxatu!



IRAZABAL

clínica dental Julián Etxeberria, N° 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

URTE ON ASKO ...ETA KITTO!

*Sasoi illunak argittu nahixan
ikusiz eza, biharra,
aittatzekua, ahaztu ez dedin,
pioneruen biharra,
Begoña bixak, Fernando, Aurora
ha ze laukote suharra
martxan jartzeko atara zebe
barruko kemen, indarra;
harrezkerotik hazixaz joan da
jaixoko zana txatxarra
distiraz bete pasatu dau gaur
mende larenaren marra,
zorioneko da ...eta kitto!
sendua daka sustarra
jarrai deixala astero izaten
Eibarren euskal izarra.*

*Doiñua: Martxa baten lehen notak
2013ko Abenduak 5
TRUNBOI*

44 ORRIALDE ETA 33 MINUTU

Ez naiz zoratu, horrek numeruok badake hor egoteko arrazoirik. 44 orrialdeko aldizkarixa egin dogu eta hau irakortzen bazagoz, esku artian dakazu edo webgunian diharduzu irakortzen. Gaur arratsaldeko 19etan estreinatuko dogun bideo-dokumentalak 33 minutuko iraupena daka. Horrek danok bihar izan doguz 25 urte hórretako laburpena egitteko, eta motz geldittu gara.

Laguntasan morduia igarri dogu azkenengo egunetan bai aldizkari berezi hau, bai bideua egitterako orduan. Lagun askorekin alkatu gara bidian. Eibarren gustoko produktua dala erakutsi deskuete beste behin be. Eta azkenaldixan asko esaten dogun zeozer da, ...eta kitto! Euskara Elkartiak zeozer antolatzen daben bakotxian, parte hartzia edarra izaten dala, bai antolaketan bihar izan ezke-ro, bai erosle edo erabiltzaille kopuruari dagokixonez. Eta hórretako arrazoia gertutasuna dalakuan gagoz. ...eta kitto! herrixak sortutako eta herrixandako sortutako produktua da. Euskal komunitadiak bultzatutakua eta eibartar guztiendakua. Batzen gaituen zeozer da, euskalgintzan beste hainbat ekimen eta proiektuekin pasatzen dan moduan.

Azkar doiaz urtiak, beltzak datoz hurrengiak. Dirulaguntzak behera egitten dabe, publizitadiak eutsi egitten detsa. Horrek datuok be gertutasunaren ondorixo diralakuan gagoz. Otarran rifak saltzen zoratzeko moduan gabiz azken astiotan: "Zuena salmenta masibua da" esan zestan San Andres bezperan erosle batek. Baiña ...eta kitto! Indako dala aittatu, eta batek baiño gehixagok bueltia emoten zeban, erosteko prest; gertutasunaren ondorixo hori be.

Beltzak datoz hurrengo hillebetiak. Erabagi gogorak ate joka dakaguz eta horrek hartu aurretik barriri urtengo gara kalera, gertu dakagun horri laguntasuna eskatzera. Instituziñuetara be joko dogu, gure lana balorau eta bihar doguna lortzeko asmuarekin. Hogeitabost betetzen dittugu, ia hogeitamar betetzeko gauza garan. Ez dago erreza!

Eta mailla personalian, eskerrik asko Aneri eta Luistxori, 1993ko uztailian, Iruñan, Gaztelu plazan genguazela, ...eta kitto!n hasi bihar nintzala esatiagattik, bai ala bai!

KOLDO MITXELENA ZUMARAN



ARGITAARITZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak: elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena. **ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri. **PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tñoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi **BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.250 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati). **COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETTA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria


23 urte gurekin biharrian: ez da gitxi!

Hamalagarren alian hasi giñan Oñatiko Gertu inprimategixarekin biharra. Eurek be aurten bete dabe euren hogeitabosgarren urteurrena. Elena, Nekane, Juani, German, Edurne, 'gure' Ana, Jaione... etxequak izango bagiña moduan tratatzen gaittue, baiña merezi baiño bronka gitxiago jasotzen dogu, onartu biharra dago.

Aldizkarixa, Txikitto!, Gida Komertziala, diptikoak, papelerixia, era guztietako lanak egin doguz eurekin eta fin-fin jarraitzen dogu. Alkarlanian proiektuak be izan dittugu, gaur arte ez bada be guk nahi moduan urten. Gaur egun asko azkartu da prozesua, malgutasuna lortu dogu, baiña eguenetako azkenengo estresak betikuak dira. Eskerrik asko Gertuko lagun guztieri!



HISTORIKOAK



Gertu inprimategiak be 25 urte bete ditu aurtan

1990. urtian inprimidu zan Oñatin lehelengoz
...eta kitto! aldizkarixa; 14. alia zan

1995. urtian inprimidu zan lehelengoz Gertun Gida Komertziala;
...eta kitto!-k kaleratzen zeban hirugarren Gida

Ana Aizpuruak ...eta kitto!-n kolaboratzaille eta diseñatzaillle
izan ostian, ekin zetsan Gertun lan egittiari

Eibarko mensajeruak ondo ezagutzen zeben Eibar
eta Oñati arteko bidia; gaur egun internet bidez
bidaltzen da alia eguen goizetan





**EVA
ALBERDI**
(Liburutegia)

EIBARKO BERRIAK EIBARRERAZ KONTATUTA

...eta kitto!-ren 25. urteurrena hil honetan betetzen da. Aurrean dut orain lehenengo zenbaki handi hura, aldizkariaren gorabeherak zeintzuk izango ziren kontatzen zuen zenbaki hura: non eskuratuko zen, zein motako gaiak landuko zituen, orrialde bat behintzat Eibarko euskaran idatzita egongo zela, besteak euskara batu "samur" batean joango zirela... 1994az geroztik astero argitaratzen den aldizkari hau eskutara ailegatu bezain pronto irakurtzen da, oso lokala da eta, horregatik, denon interesekoa da. Eibarko berriak eibartarrek Eibarko euskaran kontatuta.

Bertako ikasle taldetxo batek eginda hasieran, orain talde profesionalaz osatua. Gaur egun formato digitalean ere aurkitu ahal ditugu argitaratzen dituzten berriak. Sare sozialetan ere badaude, beraz, Eibartik mundura ateratzeko aukera ere hor dago. Zilarrezko eztei hauek ospatzeko sasoi ailegatu da. Zorionak bada, eta urte askotarako!



**MIKEL
LARREATEGI**
(Klub Deportiboa)

BIHARREZKUA GAUR EGUN

Zoritxarrez euskara elkartiak eta ...eta kitto! moduko aldizkariak biharrezkuak dira bizi garan garai honetan. Deportibotik begiratuta gure ekintza guztien altaboz ikusi izan dogu eta kitto. Beti Eibarren egiten diran ekintza danen barri danori emoten eta danerako laguntzeko prest. Alkarrekin egindakuak be ekintza asko izan dira, sasoi baten egiten ziran Berbia Emon ekitaldixetik hasitta, urte barri egunian Urkora doiazenendako Ixuan antolatzen dogun hamarretakora. Eta bixen bittartian Euskal Jairako laguntzia edo beste hainbat kontu.

Beste hogetabost urtian be holan jarraitu daixala, eta holan ez bada, euskara elkarte eta aldizkarixen beharrik ez dago izan deilla; hau da, euskerian egoeria benetan normalizau dalako izan deila. Holan ezpada, ondiokan lan gogorra daka-ta ...eta kitto!-k (eta beste guztiok be bai) aurretik.

2008. urtian, aldizkarixaren 20. urteurrena aprobetxauta, alia zuri-baltzetik koloretara pasau zan eta, horren atxakixarekin Aztiker enpresiak emaitza ezinhobiak euki zittuan inkestia egiñ eban eibarrarren artian.

Eibartarrak gehixen irakortzen dabena

Datu aittagarrixenak laburbiltzen hasitta, Eibarren 22.803 lagunek (%93,50) ezagutzen dabe aldizkarixa, inkestia egitteko orduan azken alia irakorritta zeken lagunak 13.643 (%77,10) ziran eta irakortzen emondako batazbesteko denporia 27,60 miñutukua zan. Horrekin batera, aldizkarixa irakortzen dabena erdaldunen kopurua %7,10 ingurukua da eta %95,50en kasuan etxian euskera hutsian sartzen dan aldizkari bakarra da. Aldizkarixari emondako batazbesteko notia 7,8 izan zan. Datu guztiak aztertu eta gero, inkestiak islatu zittuenetatik ideia bi bereziki azpimarragarrixak dira: ...eta kitto! aldizkarixa Eibarko hedabide indartsuena da eta erdaldunak eta elebidunak aldizkarixan idatzitakua jarraitu eta ulertzeko ahalegin berezixa egitten dabe.

Datu benetan pozgarrixia jaso eban inkestiak: gure irakorliak oso fiñak eta leialak dirala esan geinke. Izan be, aldizkarixa iñoiz irakorri dabena jendiaren artian, %77,6xak azken asteko alia irakorritta zekan, %15,6xak azken hillebetian eta azken urtian %6,4xak. Hórrek kopuru absolutueta-
ra eruanez gero, astero 14.000 lagunetik

14.000 lagunek irakortzen dabe astero aldizkarixa Aztiker enpresak 2008xan egindako inkestaren arabera

gorak irakortzen dabe ...eta kitto! aldizkarixa. Eta horrek zer esan nahi dau? Ba gure aldizkarixa Eibarren daguan komunikabide indartsuena, irakorle gehixen dakan publikaziñua dala.

Eibarko albistiak plazaratziak emoten detsa ...eta kitto!ri indarra mailla haundixan; hori be jakin genduan inkestari esker. Gertutasuna eta euskaraz kaleratziak dira eibartarrak gehixen estimatzen dabena. Euskeriari dagokionez, ...eta kitto! Euskara Elkartiak hasieratik erabagi eban aldizkarixa eibarrera gizarteratzeko tresna izan zeikiaila eta horregaittik erabiltzen dogu eibarrera. Gure irakorlien erdixak aldizkarixa ulertzeko arazorik ez dakala diñue eta beste %30 batek lantzian behiñ arazoren bat eukitzen dabela diño.



Oin dala bost urte egindako inkestiak emaitza eziñ hobiak emon zetsazen ...eta kitto!-ri.

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 urte
Eibarko
bizilagun-
erkidegoekin
konprometitua



Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe



**ESPERIENTZIAK
EMATEN DUEN KONFIANTZA**

www.euki.com

Tel: 943 200 358



EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

📞 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

**GRUPO
Funeuskadi**

943 200 443 / 661 950 710
elena@casanella.com
www.casanella.com

Juan Gisasola, 16

Casanella
STUDIO

- Obra proiektuak
- Interiorismo proiektuak
- Barne eta kanpo altzariak
- Lankidetzeta eta aholkularitza
- Contract



eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka
onenetako
Zerbitzu
Tekniko onena**



www.eitek.net

R.P.S. 5508

Beitza
Zentro Optikua

- Graduazioa
- Begitako tentsioa
- Begi-hondoa
- Ukipen-lenteak:
progresiboak...
- Audiometriak
- Bainurako eta zaratarako
tapoiak



J. Etxeberria, 13

943 700 230



**KALITATEA
HEZKUNTZAN**

OGEL

*Hezkuntza
osoa eta guztiz
euskaalduna*

J.A. MOGEL IKASTOLA

- HAUR HEZKUNTZA
Sansaburu (943 20 67 95) Argatxa (943 70 29 94)
- LEHEN HEZKUNTZA
Iturburu (Tel/Faxa: 943 20 84 87)
jamogelikastola@gmail.com
www.mogelikastola.hezkuntza.net

MOGEL ISASI BHI

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
Isasi 37. Tel.: 943 20 30 94 Faxa: 943 20 38 97
012948aa@hezkuntza.net
www.mogelisasi.hezkuntza.net

Eibar euskaldunduta hil nahi neuke. Hori esan zetsan Kontxa Laspiurrek kazetarixari rebistia sortu eta handik urtebetera egindako alkarrizketian. Baiña, bide horretan hainbat urrats emon badira be, oindiok badoguz egittekuak, egitasmua betetziak luze joko dabela jakittun. ...eta kitto! aitzindarixetakua izan zan herriko rebisten artian: 1988 urte hartako abenduaren

2xan urten eban kalera ArrasatePress bidiari ekitten lehelengokua izango zana, eta hillabete berian jaso eben eibartarrak be lehelengo ...eta kitto! Ez, gaur egun moduan, euren etxietako buzoietan; horretarako, kioskuetara juan bihar izan ziran eta, periodikuarekin batera, etxera eruan eben euskera hutsian osatutako produktua.

IZAN ZIRALAKO GARA: aspaldi hasittako bidiaren fruitua

Txao! 88, milla bederatziehunekua. Ongi etorri 89, bimillagarrenetik hurbillagokua. Ez da inuzente eguna, ez pentsa! Ametsetan be ez zagoz. ...eta kitto! daukat izena. Zer moduz tripa-jaixa jai honetan? Zer moduz digestiñuak? Nik nahi dotena da zure astuntasun ala astunkerixa hori nire aurpegitxo hau eta barruko tripak irakorritz arintzia". Gabon bueltan jasotakua izan zan, Olentzeroren ekarrixa. Mende laurdena bete dabena: hillabetekari lehelengo, hamabostekari geruago eta astekari gaur egun. Beti be doan, gero eta errazago. Kioskotik zure buzoraiño ibilbidia egin dabena, euskera gerturatziarren: kaleko inkesta baten andra batek aitortu zeskun moduan, "euskeraz Biblia eta ...eta kitto!, besterik ez dot irakortzen".

Gaur egun be danaren biharrian gagozela onartuta, sasoi hárek gatxaguak ziran, batez be ezagueraren arluan, konzienziaziñuak bere tokixa hartzen ziharduan bittartian. Argia astekarixak betetzen zeban esparruaz aparte, ezer gitxi eguan komunikabidietan: 1986xan sortu eben Deiak eta

Egin-ek Eguna eta Hemen euskarazko aste-gunkarixak, bide luzeegixa be eukiko ez ebenak. Euskaldunon Egunkariak, bestalde, ...eta kitto! sortu eta handik bi urtera, 1990eko abenduan ikusiko eban lehen argixa. Horrek emoten dau aditzera zeñ egogean zeguan euskera, Udalian be departamentua sortu barrixa zalako. Fernando Muniozguren postu horretaz jabetu eta berak piztu eban 25 urte oin betetzen dabena produktua. Seigarren Korrika pasatuko zan urte hartan gure herritik eta Bernardo Atxagaren Obabakoak-ek salduena izatia lortu eban. Juan San Martin herriko seme kuttuna Ararteko izendauko eben. ...eta kitto!-ren aurrekontua millioi eta erdi pezetakua zan.

Orduko Eibar

1988ko urte hartan hasi ziran Gabonetako argixak kalia ipintzen, komertziantiak eta dendarixak hala eskatuta. Gero eta lehenago pizten diran argixok be mende laurdena betetzen dabe gure herrixan, ordura arteko Untzagako plaza erdixan jartzen zan

...eta kitto! aitzindarixa izan zan herri-aldizkarixen artian: 1988ko abenduan ArrasatePress argitaratu eta egun gitxira

piñua mendixan lasai lagatzen hasi giñanetik. Sasoi hartan ezagutu genduan beste krisirik be, gaintitzen hasitta bagiñen be, eta frantziar produktuen aurkako boikota auto-kontzesionarixuetan hasi zan igartzen. Txikituak igoera potentia euki eban, 15 pezetatik 20ra: ogerlekua ez zan txantxa izango orduan. Drogaren problemia gatxa zan, gazte asko azpizan hartuta. Bista Alegren zeguan AYA taillerrian 110 neska-mutillentzat hiru urtetako eskola-taillerra prestau eben, ofiziuua behiñ ikasitta edifiziuua errekuerau eta kultur-etxia bihurtzeko. Bariantiarekin hasi ziran, lehelengo zatixaren hasierako pausuekin. Perurena harrijasotzailliak hitzaldixa emon eban, eta baita Clemente entrenatzailliak be: azken honek jente gehixago bildu eban. Retegik partiduko 20.000 duro kobratzen ebanian, 48 jaialdi izan ziran Astelenan, oingurekin konparauta doblia. Zuhaitzeri begira, urkixak, ezkixak eta astigarrak ziran kalia nagusi; hori bai, begixak bajau orduko, txakur-kakak sortzen zittuen buruhaustiak, lehelengo ordenantzia kaleratzera derrigortzeraiño (25 urte geruago hor antzera ibilliko gara seguruenik). Soldautza indarrian zeguan oindio-kan eta, insumisiñuari aurria hartuta, objeziñua ipiñi zan modan, gaztiak zerbitzu zibilla bete biharrian jarritta. Basarritarreri esnia zuzenian saltzia debekatu zetsen eta, zine areto mordua izatetik, bakarrarekin gengozen sasoi hartan, Untzaga ziniarekin. Herriko parke mobilla 10.500 gurpildunak osatzen eben, eurretatik 9.500 auto, 660 ka-



Mikel Larrañagaren Bandua udaletik urten eta alkartia sortu zanin be gidarixa izan da bidian.



Paulino Larrañaga artistiarri egin jakon lehelengo alkarrizketia ...eta kitto!-n.

mioi, 300 moto eta 50 autobus. Urte hartako udal aurrekontua 1.856 millioi pezetakua izan zan. Emakume bakotzak haur bat ekartzen eban mundura: natalidade tasia gaur egunian baiño zeozer altuagua zan. Eta Bombonera foball zaletuen tadiak 3.000 eibartar donostiaratu zittuan, Gipuzkuako hiriburua okupatzeraiño. Biajietarako, eibartarrok Kuba eta Dominikar Errepublikia hasi ziran eskatzen destinoztat.

Aixola urtegia larri zeguan eta ura mozteko asmua jakiñarazi eben agintarixak, telefono zenbakixak aldatzeko ordua heldu jakun (71tik hasten ziranak 11tik hasiko ziran ordutik aurrera eta 70etik 10era pasauko ziran bestiak), 200 etxebizitza egin ziran urte hartan eta beste milla falta zirala us-te zan. Eibarrek 34.355 biztanle zittuan, aurreko urtian baiño 511 gitxiago, eta urte hartan 181 jaiotza izan ziran eta 296 heriotza. Altamiran zementerixua egittiana be ahoz-aho zebillen orduko hartan eta Eibar Euskal Herri osoko herri garatuenen artian eguan, seigarren tokian hain zuzen be.

Hurrengokua prestatzen

Gaur egun errealdade eginda daguazten hainbat proiektu piztu ziran oin dala mende laurdena. Holan, pil-pillian eguazten handik urte eta erdira zabalduko zan Mendaroko ospitala, Teknikerrek Otaola etorbideko instalaziñuak zabaldu zittuan 350 millioi pezetako inbersiñuarekin, Txaltxazelaiko proiektua danon ahotan eguan baiña hasi barik, Ertzaintza be handik bi urtera desplegatu zan herrixan, gasa sartzeko lehelengo lanekin hasi ziran, Txontan 540 pisu egitteko proiektua kaleratu zan (hor bai ez dala ezebez aurreratu), 32 taxi eguazten eta taximetruak jarri ziran indarrian, Untzagako plazaren barritzia erabagi zan, Amañako Osasun Zentrua egittia onartu zan (Urkizun beste bat egittia zeken pentsauta orduan, baiña bertan behera laga zan), Ermua-Eibar tranbia funtzionatzen hasiko zan handik gitxira, autopistan lanetan hasi ziran Azittaingo adarra egitteko eta, handik gertu, Azittaiñen poligonua egingo zala onartuko zan eta baita gaur egun martxan diharduten Ipuruako kanpoko igerilekuak. Loterixan urte hartan 87 millioi pezeta jokatu ziran Eibarren (ezebez ez zan jausi), Urkin jubilatue-dako beste lokal bat zabaldu eben Ipuruakua deskongestionatzeko, Amaya zinia izandakua remodelatu zan eta su-hiltzaillien parkia osatzeko asmua kaleratu zan. Uztaillaren 19xan uholdiak izan ziran, ixa 3.300 millioi pezetako galerekin. Orduan inaugurau zan Eroski be eta estatu maillako greba orokorra egin zan abenduaren 14an. 181 bikote ezkondu ziran, euretatik 48 elizatik kanpo.

Munduan be bazan zeozer

Seuleko Joko Olimpikuak jokatu ziran 1988ko urte hartan, Iranen eta Iraken arteko gerra amaittu zan urte berian. Felipe Gonzalezek lan erreforma erretiratzera behartu eban CCOO eta UGT sindikatuak bulztatutako greba orokorrak, ecu-a hartu zan europearron moneta komun gisa (euruaren susmorik ez eguan oindiok), Mijail Gorbaxov eta George W. Bushek hauteskundiak irabazi eta euren herrialdietako presidente izendatu zittuen Pinochetek Txilen egindako plebiszitua galtzen eban bittartian, ONUk palestinarren estatua errekonozidu eban, GALEko partaidiak prozesatzen hasi ziran, Oteizak Artietako Asturiaseko Printziaren Sarixa bereganatu eban, Perico Delgadok Tourra irabazi eta Argentinan, bestalde, maputxearen alfabeto batua onartu eben. Hizkuntza gitxituari gogor borrokatzia tokatzen jakoi!



NEREA BEITIA
(Udal Euskaltegia)

...ETA KITTO!-RIK GABEKO BARIXAKUAK EZ DIRA BARIXAKUAK

Ikasle bati entzun nion behin: "...eta kitto!-rik gabeko barixakuak ez dira barixakuak", eta pentsatu nuen arrazoia zuela. Etxeetara, tabernetara, dendetara... bazter askotara ailegatzten da aldizkari koloretsua, astean zer berri izango den kontatzera edo Eibarren aparteko arreta merezi duen pertsonaren batek zer dioen jakin dezagun.



Bere lekua egin du ...eta kitto! aldizkariak eta ondo betetzen du, gainera; horretan ez dago zalantzarik. Eta euskaltegian, zer esanik ez; gure klaseetan euskara irakasteko ezinbestekoa zaigu. Urrats baxuetan, hain gai hurbilak izanda, izenburuak irakurrita, berehala jartzen dira albisteak ulertzera. Urrats altuagoetan, berriz, inguruko gaiak euskaraz landuko dituen beste komunikabiderik ez dago. Beraz, guk ere ...eta kitto!-rik gabeko astean falta itzela somatzen dugu. Gure hizkuntzaren transmisioan kate-begi batzuk etenda edo ia etenda daudela adierazten digute adituek. Nik esango nuke herri-aldizkariak, gure etxeetan eta ikastetxeetan sartuta, eten hori soldatzen laguntzen dutela, eta ez da lan makala berori.



ANE SARASUA
(UEU)

BIDELAGUNA

Bidelaguna. Horixe da burura etortzen zaidan lehen hitza. 2001. urtean UEU Markeskua jauregira etorri zenetik, bidelagun fidela aurkitu dugu aldizkarian eta bertako langileetan, eibartarrei UEUri buruzko albisteak hurbildu baitzikierte. Euskararekiko maitasunak batzen ditu bi proiektuak; batak egunero-kotasuna euskaraz etxeraino hurbilduz eta euskara sustatuz, eta guk, berriz, euskara eta unibertsitatearen arteko zubiak elkartuz. Ezagutza zabaldu, komunikatu, dibulgatu egin behar dela sinesten dugu eta mila arrazoi gehiago egon badaude ere, lan horretan beti gure aldamenean egoteagatik eskertu eta zoriondu nahi dugu ...eta kitto!
Jalgi hadi plazara!



Orduko errealidadia islatzen

Hori tokau jakuen hasierako urtietan ...eta kitto!-n kolaborau eben komikilarixeri. Eta badagoz gauza batzuk hainbeste aldatu ez diranak eta, oin begiratuta be, erraz asko ulertzeak. **Ander Gisasolak** emon zittuan urte gehixen eta baita hain geuria bihurtu zan Eustakittoren figuria sortu be. Berak behin baiño gehixagoetan esan daben moduan, "Eustakitto batez be ironikua zan, beti kejaka zebillen pertsona bat, herriko obrak zirala edo dana dalakua. Eustakitto asko dago Eibarren eta ondo dago bakotxaren gaiñian barre pixka bat egittia". Azken sasoiari gatzagua egin jaku komikia sartzia rebistan, batez be espaziua dala-eta gero eta estuago gabiltzalako herriko informaziñuari bihar dan tokixa emoteko.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 Fax: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga  **Zorionak ...eta kitto!**

KONFEKZIOAK

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



SUMMER IN THE USA Pelikuletan bezala!

PREZIOA
 Ikasle berriak: 3.895€
 Ikasle beterranoak: 3.695€

Izena emateko, www.summerintheusa.com web orrian sartu eta "Inscripción 2014"-an klikatu

INFORMAZIO GEHIAGO: 943-22-49-32
 EMAILA: office@summerintheusa.com
 BULEGOA: Vitoria-Gasteiz kalea, 18 behea - Donostia

EZAUGARRIAK

Summer In The USA-k 14-18 urte bitarteko gazteei euren ingelesa hobetzeko aukera ematen die, udako hila batean zehar amerikar familia batekin, AEB-etan bizi diren bitartean. Ikasleak hiru aste familia batean eta astebete gazteentzako kanpamentu batean igaroko ditu. Egonaldia, AEB-etako ipar-mendebaldean Washington eta Oregonen izango da.

PROGRAMAREN BARNE HAU DAGO

- Joan etorriko hegaldia
- Egonaldia familia batean
- Astebete kanpamentu amerikar batean
- Irteera eta jarduera desberdinak
- Ikasle bakoitzarentzako tratu pertsonalizatua
- Bidai eta egonaldian lagunduko duten begiraleak
- Koordinatzaile amerikar eta euskaldun baten gainbegiratzea
- Medikua, istripu eta erantzunkizun aseguruak
- Bidaia baino lehenagoko informazio bilera
- Ingeles ekintza desberdinak urtean zehar

DATAK

2014-ko UDA: Uztailean

Epe mugatua!!



LEARNING ENGLISH ► HAVING FUN ► MAKING FRIENDS ► BECOMING FAMILY



**XABIER
ZUBIZARRETA
(AEK)**

**ETORKIZUNEAN ERE
BIDELAGUN**

Kaixo lagunok:

Euskararen normalizazioaren bidean, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta berak argitaratzen duen aldizkariak gure herrian egindako lana goraiatu nahi du Eibarko AEK euskaltegiak. Euskarari egin diozuen ekarpena sekulakoa izan da eta, hemendik aurrera ere, lan horretan zuen bidelagun izaten jarraitu nahi dugu.



**JOSE MARI
BENGOETXEA
(Pilota EKD)**

**EUSKERIA ZULO BALTZETIK
URTEN ZAN EGUNA**

Urte guztietan gertatzen da zeozer berezixa, baita be 1988xan, denpora askuan zaiñ egon eta gero aldizkari barri bat sortu zan Eibarren, euskeraz ...eta kitto!, eta 25 urte pasau eta gero izen bardiña daka. Orduan urtian gauza haundixak egingo ziran Eibarren, baiña danen artian berezixena neretako abenduan egin zana da, euskeriak azkenian zulo baltz batetik urtetzia lortu ebalako, euskeraz idatzitako aldizkari baten bittartez.

Deporreko pelota taldekuak betidanik euki doguz hartuemonak ...eta kitto!-ekin, beti ekarri dabezelako pelotako porrotak eta exituak. Gogoratzen dot zelan behin batian konpromiso serixo bat firmau genduan Portalean, euskaria gure taldietan beldur barik ibiltzeko, eta itxuria nik serixo hartu neban han esandakua ze handik urte gitxira, urtian azken egunian banatzen daben Euskeriaren Sarixa, igual konfundiduta baiña neretako izan zan. 869 aldizkarixen artian akordatzen naiz entrebista batian zelan esan neban pelotia Eibarren desagertuko dala; eta egixa da nibela urtetik urtera bajatzen doiala, mutiko bizkorrenak beste kirol bat nahixago dabelako, baiña oiñ ziur nago ez dala desagertuko, nahiz eta Deporreko ixa pelotari guztiak pelota goxuakin jokatuko daben egun bat ailegau leikian.

ANA AIZPURUA, JOSE VALDERREY ETA MIREIA UGARTEBURU

“Beste mundu bat zan ordukua: eskolia izan zan guretzat”

1988ko abenduko lehelengo aldizkari hura euren eskuetatik urten zan. Ixa konturatu barik, hurrengo urtietan herrixan garrantzixa eta pisu haundixa hartuko eban proiektuari ekin zetsen. Gurekin izan dan hirukotia lehelengo urrats harek gogoratu nahi izan deskuez.

Ume-mokuak ziralakuan dagoz: 25 urteko perspektibia dago atzian. Euren aurrian hartu eban komunikabide honek izena; parte-hartzaille zuzenak izan ziran, ondo ez badakixe be zeñen ideia izan zan. Gogoratzen dabe Bandua -Mikel Larrañaga alkatia zala euskeriaren alde kaleratu zan Bando famoso hura, 1982ko abenduaren 21ekua- horman eguala, eskegitta: kitto! bakarrik bururatu jakon bati, aurreko ...eta be bihar zebala bestiari. Azkenian ...eta kitto! osorik hartzia onartu eben eta izen horrekin kaleratu zan hurrengo hiru urtetan hillabete-karixa izango zana.

Pixka bat lehenago sortu barri Euskara Zerbitzuaren arduria hartu eban Fernando Muniozgurenen ideia izan zan komunikabidia martxan jartzia. Eta, abixadia hartzeko, jende gaztez inguratzia pentsau eban eta, baita, mobilizau be. Haren "sarekadan" jausi ziran, Jose Valderrey maketatzailiarekin batera -"Kezka Deporreko rebistia barriro kaleratzeko asmua genkagun batzuk genbiltzan eta han harrapatu ninduan"-, Kazetaritzan hasibarrixak ziran

hainbat lagun. Ana Aizpuruak, Idoia Irazolak eta Idoia Arrillagak Leioara autobusa konpartitzen eben eta, eurekin batera, Enpresa Zientziak ikasten ziharduan Mireia Ugarteburuk hartu eban parte hasierako proiektuan -"hillabete batzuetarako kontratuarekin egon nintzan Euskara Zerbitzuan eta handik fitxatu ninduten"-.

Jose Valderrey, "tipometruaz baliatuta", testuak neurtzen ahalegintzen zan, argazkixak etaratziaz gain; ez etara bakarrik, "baita errebelatziak be". Argazkilarixen plantillia be luzia zalako: danak egitten zeben danetik. Hillian behin batzen ziran gaxak ziheztu eta lanak zelan banatu erabagitzeko. Gero, hillian "kontrolerako" beste billera batzuk egitten eben, "gauzak aldatu biharra baeguan jakittek". Gurian egon dan hirukotia ondo gogoratzen dittu Fermandoren "post-it txikixak, letra txikixarekin osatutakuak eta bere portaminasa". Dana dala, beste sasoi batzuk ziran, ordenadoria ez zeben-eta erabili lehelengoko hiru urte haretan: "Dana eskuz egitten genduan, idaz-makiñan, eta gero inprentan dana pikatzen zan barriro". Ana Aizpuruak go-



Sasoi hartako aliak konsultatxian irribarria nagusittu zan egillien artian.



Abentura luze honi ekin zetsenen artian doguz argazkikuak. Orduan be Bandua lekuko.

goratzen dau unibersidadeko azken kursuan hasi zala ordenadoreko programekin, "Page Maker programia erabiltzen, Armentia irakasiarekin".

Rebistia etortzen zanian kioskuetara eta beste hainbat tokietara eruateko lotiak egiten ziran Euskara Zerbitzuan bertan, Bego Bilbatuaren ardurapian batez be. "Eta kioskeruen lana eskertzeko lehelengo afarixak be egin ziran", gogoratzen dabe. Hasieratik eskusibena billa jardun eban gazte taldea, Muniozgurenen agindupian: "Berak eskintzen zeskun horretako asko, udaletxian egonda departamentuetatik sortzen ziran barrixak esku-eskura izaten genduzaz". Baiña udal-periodikua izatetik aldentzeko-edo, sortu eta hillabete batzuetara beste pliego bat etara eben kalera: Gazte gara Gazte, bereziki gaztiendako sortutako informaziñuarekin, euskeriaren progresiñorako gehixen egin zeinkien alde egiñaz.

Halanda be, talde horrek kontuan izan eban adiñeko jendiaren aportaziñua, "batez be, euren euskeria ez galtzeko. Hor gaur egun Bilbon bizi dan Idoia Irazolak lan

haundixa egiñ eban; Candido Egureni berak egin zetsan alkarrizketiak irabazi eban Rikardo Arregi Sarixaren lehelengoko ediziñua". Gitxiñaka jende barrixa juan zan sartzen: Mikel Gorosabel Norton-ek argazkixak etaratzen jardun eban, Oskar Rekaldek bere gaiñ hartu eban hillero iritzi-zutabia egittia... jendia gero eta ausartago inplikatu zan produktuak, artikulu sakonagueri forma emoteko.

Hirurak (Anak, Josek eta Mireiak) onartzen dabe "eskolia izan zala" eurentzako. Praktikak egitteko modu berezixa: holan egin zeban puentiña Aizpuruak, "Deporrekuak egin bihar ebela-eta, gonbidau zestenian eurekin probatzera. Reportaje berezixa izan zan, egixa esateko". Dana dala, "gaur egun orduka ezin dala imajiñau" diñue. Gaur egungua beste modu batian ulertzen dabe: "Produktua aldatzen juan da plantilla aldaketiarekin, profesionalizaziñuaren bidetik. Igual exageraziñua izango da, baiña ixa panfletua izatetik rebistia izatera pasatu da", diñue. "Elkartiak hartu zebanetik, gaiñera, baita independentiagoko be".



ANIAIZ
ARIZNABARRETA
(Arrate Kultur E.)

ZORIONEKOAK GU!!!

Izan direlako gara ... ez al dakizu, Euskara dela euskaldun egiten gaituena? ... Euskarak eta kulturak egiten gaitu, eta Euskara eta Kultura egiten dugu ... iturburu eta ondorio ... eragozpen adina betetasunez, bide honetan konplize eta lagun ... 25 urte betetzen dituzuelako... Zorionekoak gu!!! Urte on askotarako!!!



MARGARI
OLAÑETA
(Revista Eibar)

KAIXO ...ETA KITTO!

Halako urteurrenetan beti zalantzan jartzen naiz eta neure buruari galdetzen diot ahaztu egin ote zaidan egunen joana behar bezala kontatzen. A ze sorpresa hartu dudan 25 urte betetzera zoazela jakitean! Oso adin polita da. Zentzuna nagusitzen hasten den adina. Nahiz eta zuk, egia esan, ez duzun sekula gainera faltarik izan. Ez horixe! Lagun modura gauza bat aitortuko dizut. Ostiralero zure zain egoten naiz. Zu etortzeko desiatzen. Ondotxo dakit egunean jarriko nauzula gure txokoan gertatu diren gauza guztiez edota bidean datozen gauza berriez. Eta aizu, benetan haserretzen naiz ez zaitudanean nire buzoian aurkitzen. Errespetu falta bat iruditzen zait. Ez al da horrela?

Gainera, iritziak iritzi, ederto asko jarduten duzu Eibarko euskara jatorrean. Hobeto ere egin daitekeela? Bai, seguru! Baina perfekzioa ibilian ibilian eta denboraren buruan lortuko dugu. Bitartean, komeni da daukagunari eustea... Eta euskalkietan enkantu handia dago. Besteak beste, geure berba, esamolde eta doinu bereziekin geure sorlekuan gorde diren aberastasunak zabaltzen goazelako: Ondarroakoak, donostiarrak, goiherritarrak, markinarrak, eibartarrak....

Zuk segi lanean, jo eta ke. Segi zintzo zure herriari zerbitzu ematen, herri honek benetan maite baitzaitu. Eta ahalegindu zaitze etxeko txikiak - eta hain txiki ez direnei- gauza interesgarriak erakusten zure orrialdeetatik. Seguru nago lortuko duzula, langile fina eta saiatua baitzara. Hogeitabost urte betetzen dituzun honetan, zorionak bihotz bihotzez eta urte askotarako!!! Agur bero bat, zure lagun leial honen partetik.

...eta kitto! aldizkarixan idatzi dabenak sarritan errepikatzen dabe eurendako rebistia kazetari izaten ikasteko eskolia izan dala, unibersidadian karrera ikasi arren kazetarixaren biharra benetan ezagutzeko bidia emon detselako.

Kazetarixendako eskolia

Leioan kazetaritza ikasten ziharduan **OIER NARBAIZAK** aldizkarixan idazten hasi zanian, ...eta kitto! Euskara Elkartearen sortu zan sasoiaren: "Kazetaritza ikasten eguazten Oier Araolaza eta beste batzuekin batera hasi nintzan rebistan idazten. Goguan dakat hasieran hillebetekarixa zala eta gero saltua emon eta hamabostian behin kaleratzera pasau giñala. Orduan sasoiaren Aitor Gorosabel ibiltzen zan maketatzen, oso medio gitxikin egitten genduan aldizkarixa, ahal zan moduan egitten genduazten gauzak, baiña ilusiño haundixarekin".

Bera erredakziño-buru zala, orduan euki eban ...eta kitto!-k kazetari-kolaboratzaile gehixen, urte tarte laburrian eibartar asko fakultadian bat egiñ eta batzuk beste batzuk



...eta kitto!-ra erakartzen jua ziran-eta. Eta hórretzek idazten zittuenak gainbegiratzten eta moldatzen ibiltzia tokau jakon Oierri: "Fernandok planteau eban eredu holakua zan, erdi-profesionala, nahiz eta aldizkarixan batzuk soldatapan jardun, beti be ikasliekin-eta lankidetzan jardutian kontua oso garbi zekan. Gauzak holan, halako batian jende mordu bat idazteko, eta hórre-ri lantzian behin zeozer idatzitta kolaboratzen ebenak, argazkilarixak... gehittu bihar jakuezen. Egixa esateko batzuetan ez zan erreza izaten hórrek danak koordinatzia, batez be gure baliabidiak urriak zirala kontuan hartzen badogu. Baten batek zeozer idatzi bihar ebanian ordenatoria libre laga bihar izaten netsan eta nik ezin neban idatzi berak amaittu arte. Orduan sasoiaren bat ordenadoretik jaiki eta bestia jarri, holan ibiltzen giñan. Edozelan be, ...eta kitto!-n emondako denporia neretako aberasgarrixa izan zan, aldizkarixak unibersidadian lantzen ez ziran praktikak egitteko aukeria emon zeskun eta, horrenbeste baliabide euki barik be, produkto duiña etaratzia lortzen genduala pentsatzen dot".

Gaur egunian ETB-ko albistegixetan kirol albistiak emoten dittuan **ANA RAMOSEK** Markeskuan batu zan kazetari-kolaboratzaile taldian jardun eban eta, berak gogoratzen dabenez, "orduko oroitzen ona dakat. Gu karrerako azken urtiotan geguazten ...eta kitto!-n idazten hasi giñanian eta benetako kazetaritza egitten bertan ikasi genduan". Oñ egitten dabenez, orduan be kiroleto albistiak lantzen zittuan eta oindiok be lantzian behiñ ...eta kitto!-rako oin dala urte mordu egindako lehen alkarrizketa eta hartuemonak gogora etortzen ja-



koz: "Ipuria gimnasia erritmikuari buruzko albistia emotian, Arrate eskubaloi taldea desagertzera zoianian... oin dala urte mordu alkarrizketatutako jendia eta beste gauza batzuk etortzen jatzuz burua. Kiroleto erabiltzen dogun terminologixa, hartuemonak eta beste gauza asko ...eta kitto!-n jaso nittuan".

Eta ez hori bakarrik, Txikitto! umiendako aldizkarixan sorreria bete-betian bizitzia be tokau jakon-eta: "Fernandok Txikitto! sortzia proposau zeskunian asko gustau jatan, bestiak beste rebistako alor guztiak gure esku laga zittualako, hasi mantxetiaren diseiñuarekin, aldizkarixak eukiko zittuan atalekin, edukixekin... jarraitu eta banatzeko biharrarekin amaitzeko, hori be gure egitten genduan-eta!".

Eskerrik asko
...eta kitto!

aldatze

www.aldatze.org

EMAKUMEA
GARBITU eta
METXAK

19,90
€

EMAKUMEA - GIZONA
GARBITU eta
MOZTU

7,50
€

Spajo's

ILEAPAINDEGIA GIZONEZKOA
EMAKUMEZKOA

ESPAINIA - PORTUGAL - TXILE - MEXIKO - SAUDI ARABIA

EMAKUMEA
GARBITU eta
ORRAZTU

7,50
€

EMAKUMEA
GARBITU eta
TINDATU

12,90
€

ORAIN: *El Corte Inglés* | Ego Gain, 7
TEL. 943 206 720 - EIBAR

Zorionak

urte askotarako!

IK4  TEKNIKER
Research Alliance

PSE-EE
PSOE



Zorionak.... eta Kitto!!



ARANTZA
LASA
ASTOLA

HOGEITA BOST URTE PLAZAN

Juan zan mendeko hirurogeiko hamarkadan, diktaturapian egonda, kanpoko jentia etorri zan gure tallarretara eta gure...ixa gure berbetia galdu gendun. Eskerrak borondate haundiko andra batzuen eta gizon batzuen jardunari, ahalegin demasa hartuta, ezkutuan eñ biharrekua gañera, berreskuratzeko bidian jarri eben euskeria. Nire memorixan dago talde honek antolatutako ekitaldi bat: Untzagako plazan izan zan, oholtza batian umiak jarri eben euskeraz berbetan, harrigarria! gurasuen artian nahiko normala zan erderaz eittia seme-alabei eta. Plazaratze honekin, euskeraren transmissiñuaruen katia hasi zan Eibarren, eta harreskero ez da moztu... ikastola, gau-eskolak, irratixa, euskaltegixak, euskerazko ikastaroak, baita herriko aldixarixa: ...eta Kitto, hogeita bost urtetan plazan jardunian, euskeriari eusten, herriko barrixak eskeintzen, ekarpenaren euskarri, guzti hori eibartarren zerbitzurako.



MARISABEL
ALBIZU
(Egoaizia)

PERTSONEN ALDE EUSKARAREN ALDE

25 urte daramatza ...eta kitto! aldixariak gure artean. Azken urte hauetako aldaketen lekuko izan da. Gu guztiok moduan, gutariko edonor bezala. Beste batzuen artean, EGOAIZIAREN lanaren lekuko izan da ...eta kitto! eta, aldixariaren bitartez, eibartarrak ere horren lekuko bilakatu ditu. Orain dela 25 urte, elkarkidetzaren inguruan lan ugari egiten ziren. Pertsona asko zegoen mundu hobeago baten alde lanean, ekinean. Baina ofizialki oraindik giza garapenak, garapen ekonomikoarekin lotura estua zuen. Urte batzuk igaro behar izan dira konturatzeko, garapenak pertsonekin izan behar duela lotura eta ez ekonomiarekin, pertsonak izan behar duela garapenaren muina, alegia. Era berean ...eta kitto!-ren arrakasta horretan datzala uste dut: pertsonen bizitzaren erdian jarri eta euskara bizitzarekin lotzean. Pertsonen errealitatearen muina izaten jarraitu behar dugu. Eutsi diezaigun ahaleginari. ...eta kitto: amore eman barik!!

Famelixakuen babes ezinbestekua da ...eta kitto!-n

Aldixarixa sortu baiño urtebete lehenago laga zetsan Fernando Muniozguerenek irakasle izatiari eta Eibarko Udaleko euskara teknikari izendatu zeben. 1988 eta 2004a artian egin zeban biharra Eibarko Udalian, irakaskuntzara bueltau zan, baina ...eta kitto!n jarraitu zeban biharrian, gutxienez astian birritan bulegora etorritta. Egindako lanari eta famelixiak eskindutako laguntasuna ezagutzeko Pili Iburguren, Fernandoren andriarekin eta euren alabiarekin, Ainhitzerekin egon gara.


Behiñ baiño gehixagotan aitatzen dabe bai ...eta kitto!ko langilliak, bai zuzendaritzako kidiak gure alkartian lan egitteko ezinbestekua dala famelixaren laguntasuna. Ez bada antolaketa lanetan, billerak kentzen daben denporiagaittik, famelixiak segiduan igartzen dau ...eta kitto!n proiektu barriren bat daguala. Aldixarixa sortzeko lehelengo urtietan horrela igarri zeban Pili Iburgurenek Fernando zeozertan zebilela, “Ainhitze eta biok orduan Altsasun bizi ginen. Fernandok bazituen ohitura batzuk: asteazken arratsaldetan Ainhitze ikustera etortzen zen Altsasura eta ostiraletan gure bila Zarautzera bueltatzeko, asteburua pasatzeko. Eta derrepente falloak egiten hasi zen; bilera zuela Bilbon eta ezingo zela etorri...”.

Izan be Fernandok lan asko egin zeban lehelengo egunetik. Ainhitzek argi dauka: “Berak aspaldi zuen proiektu komunikatibo bat martxan jartzeko nahia eta kontestua eman zitzaionean, politikoki aukera ikusi zuenean, aurrera, pentsatu zuen. Eta ho-

rretarako hiru pertsona hauek behar badi-tut, horien bila noa. Horien amamarengana joan eta ikutu behar badut, egingo dut. Aitarendako ...eta kitto! proiektu komunikatiboa baino gehiago zen, proiektu pertsonala”. Eta proiektua handitzen joan zen heñian, gero eta motibaziño haundixagua zekan. “Goizeko lauretan esnatzen zen eta idazten hasten zen; handik gutxira zerbait irakurri eta apunteak hartu. Seiretan berriro argia piztu eta apunteak. Gauaren erdia pasatzen zuen apunteak hartzen. Fernandok lan piloa egiten zuen gaez”, gogoratzen dau Pilik.

Eta momentu txarrak be pasa zittuztela argi dago, famelixa guztietan pasatzen dan moduan, “...eta kitto!ko arazoak etxera ekartzen zituen” Pilik esandakuaren arabera. “Nahiz eta zuek bizitza nahiko independentea egin, ...eta kitto!ko lehenengo urteetan, bereziki, egia da nire zaintza zuk hartu zenuela. Bazenuten proiektu amankomun bat, familia, baina horrez gain aitzak bere proiektu propioa aurrera ateratzeko aukera izan zuen familian izan zuen babesarengatik. Haserreak egongo ziren, baina etxean babes hori bazuen”, azpimarratu dau Ainhitzek amak urte guzti horretan egindako lana eta aittari eskindutako babes goraipatuz.

Eta ez bakarrik ...eta kitto!, “Fernando saltsa guztietan sartzen zen beti, Parisen bizi izan genituen urteetan ere. Alde bate-tik bestera, gora eta behera, denean sartu behar zuen muturra” gogoratzen dau Pilik. Etxera bueltatuta, ...eta kitto! sortziaz gain, Zarauzko Txaparro aldixariaren sorreran ere ibilli zan, “Txaparro sortzeko bilera guztiak etxean egin zituen; Txaparroren lehenengo helbide fisikoa ere gure etxekoa izan zen. Baina Eibarrekin alderatuz gero, Zarautzen ez zuen lantalde sen-



Parisen bizi zanian be “saltsa guztietan sartzen zan”.



Famelixarekin zittuan ohiturak aldatu zittuanian igarri zetsan Fernandori andriak Eibarren proiektu barrixa ekala esku artian.

doa lortzen. Gero Oteiza Lizeoa sortu behar zela ere pentsatu zuen eta denak nazkatu zituen bere nahia lortu arte. Horrelakoa zen Fernando”, gogoratzen dau Pilik.

Baina guzti hori egitteko lantaldien garrantzixa oso haundixa zan eta horrela erakusten zetsan aittak Ainhitzeri, “oso begi ona zuen jendea identifikatzeko. Kontuan

izan bera ez zela Eibarren bizi, baina hala ere galdetuta eta abar, bazuen gaitasuna jendea identifikatzeko. Lantaldeak egin, berregin eta indartzeko. Hori bai, horretarako Eibarren goizetik gauera arte egon behar bazen, horrela egingo zuen. Pertsona oso disziplinatua zen, baita bizitza pertsonalean ere”.




2004an laga eban Fernandok Eibarko Udala, baiña ...eta kitto!-ra astian birritan etortzen zan.



**GORKA
TAGLE**
(Casa Cantabria)

**KANTABRIA ETA EIBAR
LOTZEKO ZUBIA**

Gure elkarterako ezinbesteko baliabidea da ...eta kitto! aldizkaria. Izan ere aste-kariak gure helburuetako bat primeran betetzen du, Kantabriako Etxea Eibarko herrira eta eibartar guztiengana ailegatzera, alegia. Horrela, azken urteotan ...eta kitto! gure elkartearen eta eibartar guztien arteko ezinbesteko zubi bihurtu da, Kantabriako Etxeak antolatutako ekintzen berri emanda eta horiei jarraipena egiten, esate baterako. Gurea bezalako elkarte batentzat horrelako aldizkariarekin harremana izatea gure herrian parte hartzeko eta bertan murgiltu ahal izateko guztiz beharrezkoa da. Beste modu batean esanda, ...eta kitto!-k Kantabria eta Eibar gertuago sentiarazten laguntzen digu... Beraz, eskerrik asko eta zorionak zuen urteurrenean!!!!



**UNAI
ETXEBERRIA**
(Escuderia Eibar)

ALDIZKARI BEREZIA

Lehenik eta behin zorixonak 25. urteurrenarengatik Escuderia Eibar taldearen izenean. Badira 10 urte Escuderia Eibarko kide berriak garela eta hasieratik euki genuen zuen babes, bai Arrate igoera Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izan zenean eta, nola ez, Espainiako txapelketa barruan sartzea erabaki genuenean. Azken hiru urte hauetan El Corte Ingles -Eibar Rally Sprinta antolatu dugu eta, zelan ez, zuen laguntza izan dugu probaren inguruan informazioa eibartar guztiei eskaintzeko. Eta nabarmenki azken urte honetan, proba baino bi aste lehenagoko alean rally sprintari buruz lau orrialdeko informazioa eskaini zitzaion-eta Eibarko jendeari. Aurrerapauso hori oso positibotzat jo genuen taldearen barruan.

Beste alde batetik, ...etta kitto! ez da beste edozein aldizkari baten modukoa. Uste dugu oso erraz irakurtzen dela, herriko gaiak ikutzen dituela eta askotan oso hurbiletik ikusten ditugunak. Horregatik, Escuderia Eibarren aldetik, beste 25 urte gehiago segi dezazuela opa dizuegu. Bide onean zoazte-eta. Agur bero bat.

1987. urtian irabazi zittuan Aurora Baskaranez lehen aldiz Eibarko udal hauteskundiak. Handik gitxira izendatu eben Fernando Muniozguren Euskera batzordeko teknikari. Inguruan zer egitten ziharduen jakittun, teknikuak proposamena egin zetsan alkatiari, ...eta kitto! udal aldizkarixa sortzia.

AURORA BASKARAN, EIBARKO ALKATE 1988XAN

“Zuek segi informaziño hori emoten eta Eibarko euskeran idazten”

- Euskera teknkarixa zuregana jua eta aldizkarixa sortu bihar zala azaldu zetsunian zer pentsatu zenduan?

Euskera departamentuko responsablia zan Fernando. Horrelako zeozer egitteko momentua zan; euskeria lortu bihar genduan, aurrera egin bihar genduan. Kalia ez zeguan euskerarik; etxietan-eta egitten zan, baiña kalietan oso gitxi. Komisiñuak esan zeban beste leku batzutan be bazebizela rebistak etara nahixan. Euskeria erabilli bihar genduan, erakutsi egin bihar genduan hor zeguala. Proposamena jaso genduan eta aurrera egin zeban.

- Zer sentidu zenduan ...eta kitto! kalia ikusterakuan?

Nik poza, poz haundixa. Ni beti ibilli naiz hanka bittan, etxian euskeraz dana, baiña nere gazterixan kalia erderaz bizi izan dogu. Mutillak gehixago egitten zeben euskeraz nere gazte denporetan. Nik mutillekin, gizona zanakin be, dana euskeraz egitten neban. Nik aittari entzunda detsat, Eibarren lehelengo erderaz berba egitten hasi ziranak neskak izan zirala. Eskolan erderaz egitten zan, etxietan euskeraz, baiña nere aittak esaten zeban neskak hasi zirala kalia erderaz egitten, ‘por presumir’.

- Alkate izanda, oso argi zekazun ...eta kitto!n bueltan Udalak jarrera aktibua euki bihar zebala?

Bai, nik oso argi nekan. Udalak jarrera aktibua euki bihar zeban. Zeozer lortzia nahi bagenduan, hortik hasi bihar genduan. Gauza txikixa izango zan, baiña biharra zeguan, Udala konprometidu egin bihar zan.



Alkartia sortzia erabagi zanian Aurorak argi ikusi eban responsabilidadia pasau bihar jakola.

- Fernando Muniozguren, Begoña Bilbao eta Begoña Azpiri zebizen lanian...

Bai, Fernando oso ona izan zan euskeriarekin lotutako danakin. Biharrin, oso responsablia, euskariak aurrera egitteko dana egitten zeban eta persona moduan be oso ona zan. Lehelengo tiradak udaletxetik egin ziran; hillian behin. Baina aurrera egitteko, alkartia sortzia erabagi zan. Hortik aurrera responsabilidadia elkartiari pasauko jakon eta subenziño bat emotia erabakiko da; lehelengo hamabostian behin kalia egonda eta gero astero, eta beti be herri guztian banatuta.

Nik argi nekan pauso hori eman bihar zala. Momentua zan, ilusiñua zeguan. Kalia be, euskeraz ez zekixen gurasuak be umiak euskeraz ikastia nahi zeben. Holako gauzak eskatzen ziran herrixan.

- Zelan ikusten dozu gaur egungo ...eta kitto! astekarixa?

Gauza mordo bat gehixago egitten dozue. Gazterixari emonda daguala uste dot, bai deportian, bai artian, eta abar, gazterixari begira egitten dozue. Igual horren faltia dakazue, nagusixori eskindutako denpora gehixago, baiña nik interesatzen jatan dana irakortzen dot, igual kirola egitten daben loiba gaztia euki ezkerro irakorriko neuke, baiña ez dakatenez...

- Eta etorkizunian? Zer egin bihar dau rebistiak?

Segi; notiziak izango dira denporiak eta Eibarrek emoten dabena, sasoiari sasoiak, notiziak aldatu egingo dira. Baiña zuek segi informaziño hori emoten eta Eibarko euskeran idazten.

VITALDENT

GARBIKETA ETA ERREBISIOAK DOAN

Astelehenetik ostiralera: 09.00-21.00

Larunbatetan: 09.00-14.00

San Juan, 7

www.vitaldent.com

690 628 731

943 821 885



**MAPFRE
ASEGURUAK**

LOURDES URZURIAGA

987 delegatu zenbakia

Auto aseguruak

Jubilazio planak

Inbertsio fondoak

Etxebizitza aseguruak

Sostoa, 1-behea

Tel: 943 82 04 49 Faxa: 943 82 06 09

EIBAR



EROSKI

EIBAR
hipermerkatua

zurekin

Ordutegia:  09.00etatik  21.00etara

ETXERAKO ZERBITZUA ETA ON LINE

Eibar, Ermua-Mallabia, Elgoibar, Elgeta, Sorluze, Zaldibar
(10.00etatik 20.00etara)

Otaola hiribidea, 5 – 943 820 472



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



EIBAR

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak



Alemania - Ingalaterra



Jardiñeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

Aldizkarixan lanian edo kolaboratzen ibillitako kazetari guztiak gogoratuko dabe Eibarko euskeran idazterakuan jarraitu biharreko arauak batzen zittuan dokumentua. Euskera batuan ikasitako gaztiak izanda, herriko berbetia zelan erabili ikasi biharra zeguan;

...eta kitto! aldizkarixan beti euki da argi eta ehuneko-tara be eruan izan da Eibarko euskeriaren erabilleria: %60 batuan, %40 eibarreraz. Ehunekuak albo batera lagata, Juan Andres Argoitia eta Serafin Basaurik ondo balorau dabe gure berbetiaren erabilleria.

Eibarko euskeriaren erabilleriak gertutasuna eta nortasuna emon detsa ...eta kitto!ri

Herrixan duan banatzen dan aldizkarixa izanda, tresna eziñ hobia zan ...eta kitto! bertako euskeria bultzatzeko. Eibarko euskeran lan egingo zala argi zekan aldizkariko bai zuzendaritzak, bai lan taldiak be, baiña hori danori arautzeko taldia sortu biharra ikusi zebeñ. Juanan Argoitiak holan gogoratzen dau: “*Ordurako martxan zeguan aldizkari bat. Jentia hamengo euskeran irakortzeko tresna bat bazekan eta premiña hori sor-*

tu zan. Hori anabasa izan ez zedin sortu zan eta neurri batian lortu dala esango neuke. Normaltasunez irakortzen da Eibarko euskeran eta jentia espero dau orri batzuk holan idatzitta egotia. Gaiñera inportantia da gaixak be ez mugatzia, txokokorixan ez jaustia”. Eta lan hori egitteko lantalde politta batu zan gaiñera Argoitiak ondo gogoratzen daben moduan, “*harek taldiak sortu ziranian, asanblea multitudinariuak ziran. Kulturalian egin genduan bi-*

lleria eta erabagi zan taldiak egittia, lau egin ziran eta bakotzak beran nahixen arabera hartu eban parte: aditza, morfologia, lexikua eta azentua”.

Euskeria arautzia ez da lan makala. Eibarraren gaiñera asko landu dan kontua izan da eta gero, denporiarekin, herri baten baiño gehixagotan jarraitu dabe gurian hasittako bidia, “*asmua oso politta izan zan, holako leku desberdiñetako eta edade diferentietako jente mordua batu zan eta batu gintuan batez be eibarrera arautzeko. Jente normalak premiña hori sentitzia edo gogo hori eukitzia oso garrantzitsua da*”, azpimarratu dau Argoitiak. Halanda be, dana ez zan erreza izan, Argoitiaren berbetan, “*diskusiño haundixenak ekarri zittuan billeria izan zan eibarrera idazteko arauak ematerako orduan. Arauak peligrusuak izaten dira, peligrusuak baiño jendia ados ipintzia gatxa da oso*”. Baiña lortu zan eta oso aberatsa da egindako bihar guztia.

Gertuko kazetaritza

Kazetaritza be zer nolakua izan bihar zan behiñ baiño gehixagotan esplikatzen jakon kazetari gaztieri. Herriko komunikabidia izanda, behin baino gehixagotan entzun dabe horrek kazetarixok “*idatzi zuen aittita-amamak ulertzeko moduan*”. Kazetaritza senzilluaren aldeko hautua egin zeban ...eta kitto!ko erredakzio kontseilluak; horrek gai-



Modu senzilluan idaztiak gertutasuna dakarrela pentsatzen dau Argoitiak.

Indalezio Ojanguren, 2 - behea

Tel: 943 82 01 09 / Faxe: 943 82 01 62

E-maila: eibar.ikees@thyssenkrupp.com



ThyssenKrupp

ZORIONAK eskainitako 25 urteongatik!

Errebal, 6 – 943 127 187

Urkizu, 16 – 943 206 351



ñera gertutasuna emoten dau Argoitiaren iritiz, “Eibarrera ondo egitten dabenak, edadeko jentia alfabetatu barik dago. Ez dagoz euskeraz irakortzera ohittuta eta ‘barrixa’ modoko berbak irakortzerakuan, ‘berria’ irakorri biharrenian, urreratu egitten zara. Esaldi oso luziak ez egin, senzillua... Senzilluak ez dau esan nahi ariña; gauzak ganoraz esan, modu apalian eta jentia ohittu egitten da. Seguramente irabazi egin doguz irakurliak”.

Danen gustoko erabagixak hartzia, baiña, eziñezkua izaten da eta Eibarko euskeriaren aldeko apostu horrek kontrakorik be bada. Kritika nagusiña bertako euskeria erabiltzerakuan, ahozko euskeria erabiltzen dala izaten da, baiña Serafinek argi daka hori ez dala Eibarren pasatzen: “Ez da egixa batzuek egitten daben kritikia, ahozko berbetara mugatutakua dala, hori ez da egixa. Eibarko euskeria ez dago ahoskerara mugatuta, berbak oso osorik esaten dittugu”. Gaiñera, euskalkixa arautzia erabagitziaz gaiñ, ...eta kitto!ren idazkeran apurketa baiño, gerturatze bat egin zala pentsatzen dau Basaurik: “Euskera batutik urrindu barik, lege orokorrak egin, zubi modokuak egin genittuan”. Eta horren ondorixua dira, euskera batuan idatzittako



Norberaren euskeriari konplejuak kentzeko balio izan dabela egindako lanak diño Basaurik.

testueta herrixan erabiltzen dittugun berbak sartzia edo asteko egunak Eibarko euskeran kaleratziarenak. Beti be gertutasuna lortzen dalakuan.

1988. urtiaz geroztik denporia pasau dala argi dago eta baloraziñoren bat egitteko garaixa be izan leike. Hogeitabost urtian aldizkarixak aldaketa asko euki dittu, baiña

Eibarko euskeria erabiltzen jarraitzen dau. Astero etortzen da Juan Andres Argoitia zuzentzaille lanak egittera eta ondo ezagutzen dau bai egitten dogun biharra, bai sortzen diran zalantzak be. “Denporiarekin begiratuta, itxuroso samar urten da, ez dogu aparteko hazañarik egin, baiña hankia be ez dogu sartu larregi”, azpimarratzen dau Argoitiak. Hartutako erabagixetan, halanda be, euskarrixak beran garrantzixa euki ebalagoratzten dau Juan Andresek, “ikusentzunezko komunikabidia izan bazan diferentia da. Tebisiñuan berbetian esaldixak askoz laburraguak dira, idatzixan barrokuagua izan leike. Baiña ni senzilluan aldekuanaiz”. Eta Basauriren berbetan, “norberaren euskeriari eta berbetiari konplejuak kentzeko” be balixo izan dau; “eta gure inziatiba, Eibarko euskeria arautziarena, horrek balio izan dau gero Badihardugu sortzeko eta beste herrixetan, baillarako lana egitteko”. Eta urtietako lan haundi horrek aldizkarixari nortasuna emon detsa, norberan euskalkixa gehixen erabiltzen daben herri aldizkarixa bihurtu dau ...eta kitto! eta horrek gertutasuna be emon detsa.



Serafin Basauri Eibarko euskeriari buruzko Imanol Laspiurren liburu bat aurkezten.

GURIA
ELEKTRIZITATEA

Muntaiia eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2
7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95
Fax. 943 82 00 27

www.electricidadgurria.com

BODEGA VINAGRE

Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak

Egunero
07.00etatik zabalik
Asteburuetan
10.00etatik aurrera

Barrena, 44



ESKUMUTURREKO
BOLATXO BELTZA:
21 euro



LAUBURU KARRATUA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



EGUZKILORE BELARRITAKOAK:
18 euro

KUTXAK (LAUBURU):
txikia 2,50 euro
ertaina 3 euro
handia 7 euro



ESKUMUTURREKO
EGUZKILORE LARRUA:
44 euro



LAUBURU OBALOA
BELARRITAKOAK:
5,20 euro



GILTZAK ZINTZILIKATZEKO:
10,60 euro



ZUREZKO HAUTSONTZIA:
9,30 euro



EZ DA POSIBLE KAMISETA:
18 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



UMIENDAKO ESAIT
KAMISETA:
20 euro



BURDINEZKO MAHAI GAINEKO
LAUBURU HANDIA:
11,50 euro



EURITAKOAK:
11,70 euro



EUSKERAZ BIZI NAHI
DUT KAMISETA:
10 euro

NESKAK:
S, M, L
MUTILAK:
S, M, L, XL



BURDINEZKO MAHAI
GAINEKO LAUBURU
TXIKIA:
8,25 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN bulegoan (Urkizu, 11)
**ASTELEHENETIK BARIKAKURA
10.00-13.00/16.30-19.30**

**IKUSI,
AUKERATU eta
EGIN ENKARGUA!**



KITTO-AMANTALA:
10 euro



PARETAN JARTZEKO: 6 euro

KITTO-AMANTALA:
15 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

ARBOLARAKO
OLENZERO:
3,75 euro



...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA

KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU




Euskara Elkartearen



KARRIKIRI
IRUÑEKO EUSKALDUNON ELKARTEA



ALTXATU: 10 euro



BIDE ERTZEAN: 15 euro



MIKEL LABOA: XORIEK: 16,70 euro



MIKEL LABOA: GERNIKA: 16,70 euro




NAPOKA IRIA: 15,55 euro



RUPER ORDORIKA: 16,70 euro



SU TA GAR: 15 euro



JAIOBERRIAREN LIBURUA: 24,50 euro



KUADERNO
OHARRAK
LAUBURU:
6 euro



KUADERNO
LAUBURU
TXIKI:
8 euro



KUADERNO
HELBIDEAK:
8 euro



ARGAZKIRAKO
ALBUMA:
txikia 12 euro
handia 18 euro

DISKO,
DVD ETA
LIBURUAK



ARGIA TAKOA:
9 euro

EUSKARRIA:
5 euro



Askorendako Eibarko taldia Euskal Herriko metalaren aitzindarixa da, baiña hori zalantzan ipiñi barik, bere musikiak aspaldi gainditu zittuan gure mugak eta gaur egunian edonora doiazela be, kontzertuetan jendetza batzia lortzen dabe. Eta horren adibiderik gertukuena ...eta kitto!-n salgai dakagun "Bizirik gaude" Su Ta Garren hamargarren diskua ezagutzera emoteko taldiaaren kontzertuen agendiari begiratuta errez ikusi leike.

AITOR GOROSABEL (SU TA GAR)

"Zapatu eta domeketan Markeskuara ...eta kitto! maketatzera juaten nintzan"

- Su Ta Garrek lehelengo pausuk emon zittuanetik mende laurdena pasau da eta, azken diskuaren tituluan diñozen moduan, bizirik zaqozie. Taldia sortu zenduenian holakorik espero zenduen?

Taldia sortu genduanian gure asmua musikia egitten ondo pasatzia zan, beste barik, ez gentsan geure burueri holako helburu zihetzik ipiñi, baiña egixa esateko ez dot pentsatzen orduan galdetuta horrenbeste urte eta gero oindiok be honetan jardungo genduala siñestuko genduanik.

- Lehelengo Euskal Herri maillan errefer-

rentia izan ziñazien eta gaur egunian ha-mendik kanpora be oihartzun haundixa dakazue, hori ikusteko azken hillian lan barrixa ezagutzera emoteko kontzertuen agendia begiratu besterik ez dago...

Oiñ arte emon dittugun kontzertuak zora-garraxak izan dira. Valentzia, Galizia, Madrillen, Bartzelonan... jotzen ibilli gara eta toki guztietan jendiak emon daben erantzuna, egin deskuen harrerria benetan ona izanda. Oiñ arte emondakuen artian esanguratsuenak Madrillen eta Bartzelonan emon dittugunak izan dirala pentsatzen dot.

- Euskeraz kantatzen dozuela kontuan hartuta, harritzeko modukua da hamendik kanpora zenbat jende jarraitzen zaittuen ikustia.

Euskeraz abestiak horri balixo erantsia emoten detsa, moduren batian azaltzeko merito gehixago dakala esan geinke eta, jendiak zelan erantzuten daben ikustiak harro sentitzeko beste arrazoi bat emoten desku. Kontzertuetan demaseko giro polita egon da eta holako kontzertuak eskintziak kriston emozia emoten dau.

- Gaur gabian Durangon egongo zarie, Plateruan, Durangoko Azokaren inguruan antolatutako programaziñuaren barruan kontzertua emoten. Gaurkua berezixagua izango da zeuendako?

Durangoko Azokan beste batzuetan be egon gara, baiña gaur Azokan joko dogun lehelengo aldixa izango da, beraz alde horretatik berezixa izango dala esan leike. Ez da Eibarren jotzia, baiña edozelan be, Durango aldamenian dago eta famelixakuak eta lagunak gerturatuko dira, gaur etxe-etxian joko dogu eta horrek beti emoten dau errespeto haundixa, baiña horrekin batera kontzertua emoteko kriston gogua dakagu.

- Zelakua da disko barrixa?


Honetan be gure oiñ arteko ilduari segidu detsagu eta letrak idaztitan horrenbeste sufritzen diharduan jendiarekin pentsau dogu, beti be modu positibuan islatzen ahaleginduta. Diskua nahiko bariaua urten dala pentsatzen dot, oso indartsua, meta-



Hillebete emon dabe disko barrixa presentatzeko kontzertuak eskintzen han eta hamen.

artile
www.artile.net - Tel. 943 207 227

Mauri 
ITURGINA-FONTANERO Txonta, 13 - 4.
Instalatazaille baimendua
Gasa, Kalefakzioa, Aire
Sukaldeak eta Bainugelak
T 649 829 033



Kazetaritza ikaslia zala jardun eban ...eta kitto!-n.

Oin dala urte bi herrixan zuzenian ikusi genduaz Sanjuanetan.

laren inguruko hard-rocka eta heavy meta-
la nagusi dira. Kolore asko dakazen lana
urten da, oso disko freskua. Diskua graba-
tziak beti emoten dau biharra, baiña hor-
tik haratago nahiko erre etara dogu, dis-
kua egitten asko disfratau dogu eta hori
diskuan islatzen da.

**- Taldiak eta ...eta kitto! aldizkarixak
ixa-ixa edade berbera dake. Lehengo
sasoian rebistia maketatzen ibilli zi-
ñan, ezta?**

Egunkari formatua zekanian kazetaritza
ikasten neguan eta Luistxo Fernandezek ira-

katsitta maketatzen ibilli nintzan, bai. Plan-
tillak preparau, argazkixak eta beste mate-
rialak bildu eta holako beste kontu batzu-
rekin arduratzen nintzan. Markeskuan eguan
...eta kitto! eta aldizkarixa astelehenetan
bidaltzen genduan inprentara. Ni unibersi-
darian ikasten nebillen, kontzertuak emo-
ten hasitta geguazen eta, gaiñera, futbito
talde batian be jokutzen neban. Horregait-
ttik zapatu eta domeketan Markeskuara, re-
bistia maketatzera juaten nintzan. Garai
oso politta izan zala pentsatzen dot, orduko
oso oroitzapen politta gordetzen dot.

**- Aldizkarixa ondo baiño hobeto ezagu-
tzen dozu, bestiak beste alde bixetan
egon zaralako, bertan biharrian lehelen-
go eta gero, 25 urtian hamaika alkarriz-
keta egin detsuguz. Zer begittantzen ja-
tzu ...eta kitto! aldizkarixa?**

Denporan asko hobetu dala pentsatzen
dot, ...eta kitto!-n benetako kazetaritza
egitten dala begittantzen jata, bertan
emoten diran albistiak ikuspuntu oso plu-
ralian idatzitta dagoz eta denporiakin al-
de guztietako gauzak beldur barik emoten
juatia lortu da.


Apalategi, 4 - 20600 EIBAR - Tel: +34 943 70 70 50
e-maila: mail@industriasmil.com - www.industriasmil.com

— ACITAIN, S. A. —

Zerbitzugunea **AVIA**

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Tel. 943 12 16 62 Tel./Faxa. 943 12 18 62 acitain@gmail.com



...eta kitto!
eskuan
eta ibilli
munduan





La  **Salle**
Eibar

IKASTETXE KONPROMETITUA


Euskadi
2009

Gure ikastetxeak, La Salle proiektua izanik, arlo guztiak hartzen dituen ikaslearen heziketa osoa du helburu nagusizat eta, horretarako, gorputza, adimena, izaera, enpatia... lantzen ditugu; eta ezaugarri horrek hezkuntza komunitate guztiari eragiten dio. Helburu horrek bultzatzen ditu urteetan zehar martxan jarri ditugun hainbat proiektu eta metodologia berritzaile: Ulises, Sormen, Sein, Hara, ... Baina gure ikastetxearen proiektuak ere bizi konpromiso bat dakar berarekin eta gaur egungo egoerari erantzuteko eragile aktibo izan behar gara. Gure konpromisoa hainbat arlo-

tara hedatzen da eta, horrela, justizia eta pakearen alde sentsibilizazio kanpainak eta ekimen zehatzak aurrera eramaten ditugu, inguruko erakundeekin elkarlanean (Eibarko kooperazio mahaia, Elikadura Bankua, Pobrezia Zero kanpaina, Garzela Pastoral, ...). Aipamen berezia merezi duzte La Sallek duen PROEGA izeneko GGKEak eta Tandanacui izeneko ikasle taldeak.

Euskara eta natura dira beste bi arlo garrantzitsuak. **Gure hizkuntza galdu ezin dugun aberastasuna dela ulertzen dugu; baina ez altxor gisa gorderik izan behar duguna,**

baizik eta gure bizitzako arlo guztiak ulertarazten eta azalarazten dizkiguna. Horregatik da gure oinarriak zehazten dituen zutabe nagusietakoa eta, egunero lantzeaz gain, Euskararen Eguna eta Euskal Astearen bidez konpromiso hori zabalitzen saiatzen gara. Bestetik, natur zaletasuna ere badugu oinarri. Naturarekin eta horren baliabideen erabilera zuzenarekin bat eginda gaudete eta Agenda 21aren bidez lantzen dugu. Horiek dira, besteak beste, Eibarko La Salle ikastetxeak gizarteari erantzuteko dituen oinarri sendoenak.

- katalogoak
- aldizkariak
- liburuak
- agendak
- gida komertzialak
- liburuxkak
- kartelak
- ...



 **gertu**
in primategia

zubillaga industrialdea, 9 • oñati • tfnoa. 943 783309 fax: 943 783133 • gertu@telefonica.net

Ale gehixenak herrixan irakortzen badira be, badira kanpora bialtzen diranak. Dana dala, gaur egunian web orrixak betetzen dittu gehixenbat kanpuan daguazenen euren herriko barrixak jasotzeko nahixa. Korreoseko zerbitzuak be ez dauka lehentasunen artian he-

rri-aldizkarixak banatzia eta Euskal Herrixan bertan bizi danak be egun batzuk itxoin egin bihar izaten baitu rebistia jasotzeko. Soportia bata izan edo bestia, argi daguana da jarraitzaille oso fiñak dittugula Eibartik kanpo bizi diranen artian.

Herrittik kanpo bizi diranak berakatza baiño fiñaguak herriko barrixak jasotzen

Rebistia kaleratu eta berehala jasotzia zaila dake kanpuan bizi diranak. Halanda be, web orrixan zintzilikatzen danetik aukera barrixa zabaldu jakue Eibartik kanpo bizi diraneri


eta eguen arratsaldero itxoitten egoten dira, zain, aste horretako barrixak jasotzeko. Sasoi batian oin baiño jende gehixagok eskatzen eban rebistia, baiña informaziñua ixa berehala jasotzeko Internetek eskintzen

daben aukeriarekin jendiak web orrrittik jarraitzen dittu Eibarko barrixak. Halanda be, badago Estatu Batuetako Princetonen astero-astero jasotzen dabena, hainbat egunetako atzerapenez bada be.

Urtietan, han bizi izan ziranian, jaso eben rebistia be Maite Arrazola ...eta kitto!



Maite Arrazolak eta Alejandro Zelaia Floridako Danian jaso izan eben rebistia hainbat urtetan.



1999ko abenduan diasporan rebistia jasotzen ebenekin egindako erreportajia kaleratu zan.

Bidebarrieta, 10 - 1.
Tel. 943 82 04 89
Fax. 943 70 04 27
eibar@labsindikatua.org

bankarentzat dirua
herritarrontzat miseria

Euskal Herriak hitza eta erabakia

LAB

ARRATEKO ANDRA MARI HERRI IKASTETXEA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA JANTOKI ZERBITZUA

J.A. Iturrioz, 5 20600 EIBAR Tel: 943 20 72 35
Faxa: 943 25 77 34 e-maila: 012051aa@hezkuntza.net

rebistian jardundakuak. Bere gizona Alejandro Zelaiak zesta-puntan jokatzen eban Daniako frontoian eta handik jarraitu bihar izan eben hamengo barrixak. Oso gustora hartzen ebela esan zeskun, "hamen baiño sakonago irakorritz gaiñera". Hortik aparte, aitortu eben oso ondo zetorkiela, "gure hizkuntzarekin lotura bat izateko modua be bazalako, nahiz eta guk etxian eta beste pelotari eta andrekin euskeraz egiñ". Aste-ro jasotzen eben, jakiña, "aste batzuetako atzerapenarekin".

Jarraitzaille leialak

Bartzelonan Ingeniaritza Biomedikua ikasten dabillan Maite Zabalak be gertutik jarraitzen dau Eibarko errealidadia gure web orrritik. Etxera hiru hillabetetik behin

datorrenez, asko eskertzen dau hamengo barrixak izatia, "batez be Twitterren bidez". Rebistaren pdf-ia eguen arratsaldero jaisten dabela diñosku Maitek, "eta baita goittik behera irakorri be". Kuadrillakuak be jarraitzaille fiñak dira eta interes handiarekin jasotzen dittue gure barrixak, "El Diario Vascora be jotzen dogun arren". Jai-xak eta halakuak deitzen detse atenziño gehixen eta horren inguruan web orrixan zintzilikatzen doguzen argazki-albumak.

Yasmin Soud, bestalde, ez da konformatzen internetez jarraitziaz eta amak etxetik bialdutako rebistia jasotzen dau Salamancan, "paper soportian". Musikologia dihardu ikasten Gaztela-Leongo herrixan eta, "honekin, hiru urte geratzen" jakoz karrera amaitzeko. Herriko gauzak irakor-



Maite Zabalak Bartzelonatik jasotzen dittu Eibarko barrixak ...eta kitto!-ko web orrritik.



Yasmin Soudek amaren etxetik bialdutako rebistia jasotzen dau Salamancan.

tzeko desiatzen egoten dala diño Yasminek eta asko fijatzen da "iragarkixetan be". Gabonetan bueltauko da etxera; baiña, askotan denboratuak egitten dittuan ez etxera etorri barik, asko eskertzen dau bere herrixarekin eta herritarrekin lotura horrekin jarraitzia.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

ITURRI
ARDOAK

ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

gestilan
asesores

Zezenbide, 4-behea
Telefona
943 20 70 02
Faxa
943 20 87 92
e-maila
gestilan@gestilan.es
web orria
www.gestilan.es

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

Ketesa 2010 *bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala*

altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...

bulego materiala enpresetan banatzen dugu

Estaziño kalea, 12
20600 Eibar
df. 943121973 / 943121974
fax. 943127068
email. info@ke2010.com

Aldizkarixaren eta bezeruaren arteko zubixa, ...eta kitto!-ko publizistia

Fernando Muniozgurenek behin eta berriro gogoratzen zeban, “publizidadia saltzia da daguan lanik zailenetakua eta bihar dan moduan zaindu bihar doguz gure publizistak”. Aldizkarixaren diru sarrera nagusiña publizidiak dakarrela jakiña da, proiektuaren autofinanziaziañua %60kua da eta horretan pisu berezixa daka bai ohiko publizidiak bai Gida Komertzialak be. Lan bi horrek egitten Itziar Albizu eta Belen Ulaziak dihardue, makiña bat urtian, bixak be.

Denpora askokin planifikatzen dan zeozer da publizidadia. Betidanik landu dittu asko publizidade gehigarriak, baiña oindiok be gehixago landu izan dira 1998. urtiaz geroztik. Egoera ekonomikuak gorakada garrantzitsua bizi zeban eta publizidade esparrua bereziki lantzeko aprobetxau zan. Ordukuak dira ezteien gehigarria edo opariena. Aurrelan guzti hori ezinbestekua da, “gero be lanak batzen jakuz. Oiñ momentuan be, esku artian euki doguz San Andre setako ale berezia, Urteurreneko alia, Gida

Komertziala, Oparien gehigarria eta Urtekariko ale berezixa”, azpimarratzen dau Itziar Albizu publizidade arduradunak.

Lantalde nahiko finkua izan da publizistena ...eta kitto!n. Eta aukeria egon darian, ezagunen artian pasau izan da testigua, “*Gida Komertzialerako publizista moduan ekin netsan nik ...eta kitto!n, nere koñatiak, Mertxe Agirrek laga ebanian*”, kontau desku Belen Ulaziak. Gero, bigarren publizista baten biharra ikusi zan, izan be, gaur egunian publizista bixak egitten dabe eskintza guztia, Gida Komertziala barne. ...eta kitto! aldizkarixaren lehelengo urtietan berezko publizistak hartzen ziran Gida Komertziala egitteko.

Eibar herri haundia da, denda asko dago, baiña bezeruekin hartu emon oso zuzena dake Belen eta Itziarrek, “asko ibiltzen gara gora eta behera. Gehigarri eta abarrak eskintzen edo kontratuak egitten, asko bisitatzeten dittugu eta harreman oso zuzena sortzen da. Gertukua dake aldizkarixa, eu-



Itziar Albizu publizista buleguan iragarkiak prestatzen.

rena moduan sentitzen dabe eta hori emaitzan igartzen dala pensatzen dogu”.

Eta numeruak ikusitta be gauzak ondo egitten dirala emoten dau. Diru-laguntzak asko bajau diran bittartian edo lan berezixak (itzulpen eta diseinu lanak, adibidez), publizidiak eutsi egitten detsa, “*gehixago kostatzen da jentiak baietz esatia. Baiña publizidadia guztiz kentzia ez dau jentiak orokorrian nahi. Gaur egun egitten daben esfortzua eskertu egin bihar detsagu bezero daneri, egixa esan. Momentua gogorra da danondako, baiña oso giro onian jarraitzen dogu lanian*”, azpimarratu dau Belen Ulaziak.

Hori bai, publizidadia inoiz ez da nahikua Itziarrek ondo gogoratzen daben moduan, “*gurekin harremanetan jartzia baiño ez daka ...eta kitto!n publizidadia jartzia nahi dabenak. Horretarako 943 20 67 76 telefonora deittu edo publizitatea@etakitto.com helbidera idatzi deixala*”, beti da-eta aukera ona ...eta kitto!n publizidadia egittia.



Belen Ulazia dendari batekin publizitatia lotzen.



URKIZU ESKOLA

HAUR ETA
LEHEN HEZKUNTZA

JANTOKI ZERBITZUA

Karmen, 5 • 943 12 17 78 • 20600 EIBAR
e-maila: 012050aa@hezkuntza.net

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

Lakett
ESTETIKA MASAJE
ESTETIKA MASAJEA

**BERRIENA
ESTETIKA
MUNDUAN**

- Ilea jausteari irtenbidea
- Emaitza ikusgarriak eta azkarrak produkturik gabe
Etorri eta galdetu!

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00 ZAPATUETAN: 09.00-13.00

BENICOBA

**Etxeko
tresnak
Sukaldeko
altzariak**

**BEHAR DUZUNA LORTZEN
LAGUNTZEN DIZUGU**

Juan Gisasola, 12-14
Tfnoak. 943 20 39 02 - 943 70 13 95

Tribeka

oinetakoak



Zuloagarren, 7 943 20 62 24

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

ASUS



SAMSUNG

TOSHIBA
Leading Innovation >>>

Gerritek

INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6

Tel: 943-033892 / Faxe: 943-031521

emaiozu
euskararil

ikasturtea
13/14
matrikula zabalik

Bista Eder, 10
943 70 09 12

Urtarrilaren 7tik aurrera Matrikula Zabalik

- Maila guztiak (4. maila barne)
- Goizeko 8.30etatik iluntzeko 9ak arte
- Azterketetarako prestakuntza (HABE, EGA, IVAP, Osakidetza...)
- Aurrez aurre zein on-line (BOGA)
- Tarifa bereziak



**Eibarko UDAL
EUSKALTEGIA**

**etorri eta
galdetu!**

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreetako
1. solairua

☎ 943 12 02 00 Faxe: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 11 Barne Medikuntza |
| 2 Zirurgia | 12 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 13 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 14 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikokoak | 15 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 16 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 18 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |
| 10 Neurologia (BERRIA) | |



tartak
•
enkarguak
etxera

Bidebarrieta 28
Tel. 943 20 79 73



ZURE AUKERA DA!

12 LEKU BAKARRIK



ENERGIA ALORRERAKO
TRESNA ELEKTRIKOEN
GARAPENERAKO TEKNIKARIA

%100 SUBENTZIONATUTA
Langile eta, batez ere,
langabetuei zuzenduta

Azkeneko egunak!

Zorionak
...eta kitto!ri bere
25. urteurrenagatik



IEFPS-GLHBI
ArmeriaEskola*



Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44
e-mail: eibar@armeriaeskola.com

www.armeriaeskola.com



EIBARKO UDALA

www.eibar.es

“Zorionak ...eta kitto!-ri eta eibartar guztioi 25 urte hauetan aldizkariaren egile eta euskarri izatearren!”

EIBARKO UDALA

Azken urtiotan irratixekin izandako kolaboraziñuak jaitsi badira, hainbat emisorarekin jardun izan dogu alkarlanian urtiotan eta hainbat kazetarik onda horretan trebatzeko aukeria izan dau. Baitta ondo aprobetxau be!

...eta kitto! presente izan da irratixan be

Rebistia sortu eta handik bost urtera, 1993an, siñatu eban ...eta kitto!-k alkarlanian orduko Radio Estudioarekin jardutia, `Berrikitto´ saiaurekin. Oier Araolaza eta Ane Sarasketak asteroko kultur ekintzen barri emoten hasi ziran eta, handik hillebetera, Onda Cerorekin antzerako akordixua siñatu zan, `Bertatik bertara´ programia eskintzeko; Letizia Gomez eta Jose Luis Gorostegi ziran aurkezliak. Oporren ostian, irradi programa horrek astian bi izatera pasau ziran eta beste batzuk gehitu ziran: `Taupaden hotsa´ hasi ziran eskintzen Ana eta Maider Aranberrik Radio Estudion; eta `Hari-harixan´ izeneko irratsaiua hasi zan emititzen Onda Ceron, Oier Narbaiza, Amaia Muruamendiaraz eta Enrike Izagirrerekin. Izen berarekin jarraitu eban programak, baiña hurrengo urtietan Lierni Ibartutxi, Koldo Mitxelena eta Maite Arra-

zolak hartu eban hasierakuen tokixa, jarraixan Silbia Hernandez, Eva Juez eta beste batzuek jarraitu zetsen bidiari. Aurrekuekin batera, Arrate Irratixak be betidanik izan dau lehentasuna rebistaren gaineko gauzen barri emoteko.

`Txutxu-putxuka´ Eibar ezagutzeko DBH-ko gaztiendako programak be oihartzun haundixa euki eban 2000. urtian sartuta. Ainara Argoitia eta Borja Rodriguezek aurkezten eban eta hainbat ikastetxetako ikasliak pasau ziran bertatik. `Berrikitto´-ren azken saiua, bestalde, Izaro Aulestiarte eta Iker Aranberrik egiñ eban. Gaur egun Silbia Hernandezek jarraitzen dau Bizkaia Irratixan tertulianuaren lanetan hiru asterik behiñ.

Telebisiñuari dagokixonez, Oier Narbaizak `Berbetan´ alkarrizketa saiua eskintzen eban KTB-rako. Une honetan ...eta kitto! Debabarrenako euskara hutsezko telebisiñoko akzioduna da.



JUANMA CANO
(Cadena Ser)

IRRATIAN BERRIKITTO

Ostegunero gertatzen zen. Animoz betetako euskaltzale talde bat irratira ailegatzen zen, landutako gidoia, disko batzuk eta kasete zintan grabatutako iritzi batzuk eurekin zekartela. Hogei minutuz elkarrizketa, kale-inkesta, musika eta aste osorako Eibarko agenda soziokulturalarekin irratia betetzen zuten. Eibarko eta sasoi hartan Radio Estudio zen gure emisorako klasikoa bihurtu zen "Berrikitto" antenan ipintzen zuten ...eta kitto!-ko neska-mutilak ziren. Ikusi ez arren igartzen zen alde aurretiko lana eskatzen zuten hogeia minutu. Silbia, Oier, Eva, Maider, Unai, Koldo... irradi eta lokuzio maila bikainaren arrastoa laga zuten denek.

Lan ona egin zuten eta gauza bera esan dezakegu mende laurdena betetzen duen aldizkariari buruz. Nire zorionik berona gure eskura ailegatzean hori asteke unerik onena izatea lortzen duen aldizkari... azken horretan barixakua izateak zeresanik izan dezakeen arren.



FELIX MORQUECHO

BESTE 25 URTEZ

Horren zaharra ez naizela abisatu eta gero, gogoratzen dut eskolan nengoenean asignatura pare bat euskeraz ematen hasi ginela. Gurea "proiektu pilotu" moduko bat zen, gu baino urtebete gazteagoak zirenek dena euskaraz ikasi behar zuten lehenengoak zirelako. Ordutik hona gauzak askotxo aldatu dira. Kontuak egiten hasita, 13 urte nituenean hasi ginen ...eta kitto! etxeko buzoian jasotzen. Harrezgero 25 urte pasatu dira, eta horien erdia baino gehiago eman ditut ...eta kitto!-koak lankide modura ditudala. Urteak pasa ahala hainbat aurpegi izan dira, eta bai zirenak bai daudenak "kolegak" izan dira beti berbaren zentzurik zabalenean. Garai zailak bizi ditu gure ogibideak gaur egun, eta gero eta gutxiago gara Eibarko informazioaren gainean gaudenak. Beraz, 25 urte betetzean esan behar dizuet beste 25 urtez nahi zaituztedala nire buzoian. Zorionak, aurrera eta kitto!!

Berrikitto irratsaiuan hainbat lagunek hartu eban parte, tartian Mikel Arrillagak, Ane Sarasketak eta Maite Arrazolak.



Onda Cerorekin alkarlanian "Bertatik Bertara" programia egiñ eban hainbat urtetan.

Sarixak eta bestelako omenaldixak

Mende laurden honetan, hainbat sari eta errekonozimendu jaso ditu ...eta kitto!-k. Lehelengua Rikardo Arregi Sarixaren lehengo ediziñuan izan zan, 1989ko julixoko 15ian, Kandido Egureni Idoia Irazolak egin-dako alkarrizketa batekin. Sari horrekin eibarreraz jardutia be balorau eban epai-mahaixak eta, baitta, zelau ez! alkarrizketa-tutakuak kontautakua be.

Ez haiñ aspaldi, 2009ko otsaillaren 2xan, bestalde, Ukan Berrikuntza Sarixa emon zetsan Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak ...eta kitto!-ri. Modu horretan saritu eben hogeitertan aldizkari honek izandako aldaketak eta uneoro etorkizunera begira egotia.

Aurten berezixa izan da guztiontzat, 25. urteurrena tarteko. Holan, Sanjuanetan hainbat ekitalditan hartu genduan parte: hasi dultzaineruen kalejirarekin, jarraitu udaletxian botatako pregoiarekin eta San Juan Suan eta Soka-dantzan parte-hartzearekin. Gaur udaletxeko pleno aretuan egingo dan ekitaldixak eta Gabon Zahar egunian, urtero lez, banatuko dittugun Eibarko Kirol Sarixekin amaittuko da urte berezi hau.

Bestalde, hanbat errekonozimendu be jaso dittugu gure herriko beste alkartien partetik: holan, Bakillauaren Kofradixak ohorezko kofrade izendatu ginttuan eta Amañako Jai Batzordiak jaixetako txupinazua botatzera gonbidatu zeskun 2007ko jaixetan. Eta beste hainbar errekonozimendu jaso dittugu hainbat kirol alkartietik, batez be: Kalamua Judo Klubak saritu ginttuan 1996xan, Eibarko Txirindularitza Elkartiak 2001ian eta Eibar Rugby Taldiak, esaterako, 2010ian.



Ukan Sarixa jaso eban ...eta kitto!-k oin dala lau urte, febreruan bost.



Candido Egureni egindako alkarrizketiarekin jaso eban ...eta kitto!-k Rikardo Arregi Sarixa.



Aurtengo Sanjuanetako ekitaldixetan hartu dau parte ...eta kitto!-k.

vinos
Solera Eibarresa

Ardo, Garagardo eta Likore Banaketa

Gabonetako Eskaintza Berezial

Etxez - Etxeko Zerbitzua

Ibur-Erreka poligonoa, z/g

info@vinosconsolera.com  

www.vinosconsolera.com

OnLine Denda



**ABENDUKO
ZAPATUETAN
OUTLET-A**

Baita 7an ere

10.00etatik 14.00etara
943 201353 / 943 206614



Arrate Bidea, 24
20600 EIBAR
Tfnoa : 943 70 22 89
Fax : 943 20 31 98
www.itzio.es
012949aa@hezkuntza.net

Euskara putzu sakon eta ilunean,
ez dadin sekulan ito,
Euskara itxaso urdin eta zabalean,
bizi dadin behin-betiko,
euskaraz... eta kitto!

Guk euskaraz, zuk zergatik ez?

Zorixonak!!!



"Zorionak eta eskerrik asko

25 urte hauetan

Euskara indartzen

egindako lanarengatik"

Etorri Peppa ezagutzera!

Abenduak 12 Osteguna

18:30etatik 20:00etara

Anima zaitetz!



El Corte Inglés Merkatal Gunea - Beheko solairuko sarreran (Ego Gain,7 Eibar)

Txikitto!, euskeriaren transmisiñorako erremintta irakasle eta gurasuen eskura

Irakurzaletasuna Eibarko umien artian zabaltzia zan Txikitto! aldizkarixaren sorreran ...eta kitto! Euskara Elkartiak eta Eibarko ikastetxiak ipiñittako helburu nagusiña. Horrek hor badirau be, azken urtietan gurasuen parte hartzia sustatzia nahi izan dogu eta transmisiñorako erremintta moduan diseiñatzen dabe ...eta kitto!ko lantaldiak eta ikastetxietako ordezkariak kurso hasieran egitten dan billeran.

1996. urtian ikusi eban argixa 6 eta 12 urte artian banatzen dan produktuak. ...eta kitto! elkartiak pare bat kazetari hartu zittuan (Maidar Aranberri eta Ana Ramos) eta Txikitto! sortzeko eskatu. Ikastetxiekien berba egiñ, Udalak finanziaziñua jarri eta lehelengo numeruak 1996-97 ikasturtian kaleratu ziran. Txikitto! personajia sortu biharrira zeguan eta Gorka Aizpurua diseiñatzailliari eskatu jakon.

Produktua zer nolakua dan azaltzia ez da oso gatxa gaiñera. Bi dira aldizkarixak di-

ttuan osagarri nagusiñak: umiendako eta gurasuendako apropos sortzen diran artikululu eta alkarrizketak eta umiak eurak egitten dittuen lanak (txistiak, ipoiñak, denborapa-



sak, bertsuak...). Eta umiak gustora askuan hartzen dabe parte, aurtengo urteurreneko bideuan parte hartu daben elkarrizketatuak be argi lagatzen dau hori kontuori. Amaia Rodriguezek 25 urte baiño gitxiago dakaz, "eta nik betidanik ezagutu dot ...eta kitto! aldizkarixa etxian, baiña, gaiñera, eskolan Txikitto! jasotzen genduan".

Izan be formato aldaketa asko euki dittu umien aldizkarixak. Bi koloretako produktua, A4 formatokua, A5 formatokua eta webgunian zintzilikatzen zan sasoi be bizi izan zeban. Baiña eskolak holan eskatuta eta erabilgarrixagua dalako, gaur egunian, barrio be kaleratzen da papelian, zuribeltzian. 1.350 aleko tiradia daka Txikitto!k eta Eibarko ikastetxe danetan banatzen da. Ume kopuruak gora egin dau azkenenengo urtietan eta famelixaka banatzen da. Datozen urtietako erronka nagusiñak, edukixak urteroko moduan egokitziiaz gain, tiradia igo eta aspaldiko helburua: Txikitto! hillebetekarixa koloretan izatia.



astixá

Zezenbide 7, Eibar 20600 Gipuzkoa tlf.943206231

GASOLEOEN BANAKETA

estación de servicio **kantoi** eibar

ZERBITZU ONENAREN SAKIA

20.000 L.

2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis

Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOIA



Azken ediziñoko irabazlien famelixa argazkixa, behiñ ekitaldixa amaittuta.

Eibarko Kirol Sarixen XIX. ediziñua egingo da Gabon Zahar egunian

Badira hemeretzi urte Eibarko Kirol Sarixak banatziari ekin zetsala ...eta kitto! astekarixa; hori bai, herriko kirol talde guztien laguntasunarekin. Ekitaldixak toki fijua daka kalendarixuan: urteko azken egunian izaten da, eguardixan eta Portalean (aurten leikiena da Coliseora aldatzia, Portalea egun horretan itxitta badago). Urtero-urtero, hogeittik gora espezialidadeko kirolarixak Esther Galarzak diseiñautako zeramikazko sari-xa jasotzen dabe; eurekin batera, egindako ibilbidia-oren ordaiñez, beste batek sari berezixa jasotzen daben bittartian. Euskeriaren sari-xa be izaten da, gure hizkuntzaren sustapenian egindako biharra sari-tzeko eta azken aldixan kirol babesliak edo horren alde egitten dabenak be jasotzen dabe beste trofeo bat. Adi, beraz, eta jua urteroko zita hori prestatzen. Kirol bakotzeko izendatuaren izena hillaren 18rako jakiñarazi biharko da ...eta kitto!-n.

Ekitaldixaren ondoren, jakiña, eneroko lehelengo aliak, urtero lez, ekitaldixaren barri emongo dau eta, baitta, urtian zihar herrixan izandako kirol ibilbidia-ren errepasua egingo detsa.



Iaz sari berezixa Jaime Barriusorentzat izan zan.

18 EDIZIÑUETAKO SARI BEREZIXAK

- 1996) Marcial del Amo
- 1996) Manu Agirre
- 1997) Txus Alzaga
- 1998) Iñaki Zuazo
- 1999) Juan Luis Mardaras
- 2000) Juanito Gisasola "Txoko"
- 2001) Jose Luis Akarregi eta Miguel Gallastegi
- 2002) Pako Larrañaga "Pakol"
- 2003) Iñaki Bolinaga
- 2004) Pedro Egiguren "Ixkua"
- 2005) Jose Aranberri
- 2006) Patxi Usobiaga
- 2007) Pedro Agirregomezkorta
- 2008) Miriam Merino
- 2009) Ramon Telleria
- 2010) Inma Urkiola
- 2011) Miguel Diego
- 2012) Jaime Barriuso

AHOLKULARITZA / AUDITORIA

Gaurve

Fermin Calbeton, 13-15
236 Postakutxa

Tfnoak. 943 202 461
943 700 142
Faxa. 943 201 125

bic **berrilan**

gipuzkoa

ZURE IDEIENZAKO ETORKIZUNA
UN FUTURO PARA TUS IDEAS

Azitain 3, 2. eraikina
20600 EIBAR

tel.: 943 00 09 99
faxa: 943 82 06 69

www.bicberrilan.com correo@bicberrilan.com

Twitter eta Facebook egunerokotasunian barneratuta

Interneten ...eta kitto! Euskara Elkartaren lantaldien barri emateko orri estatiko bat izatetik, egunerokotasunian lan tresna izatera pasatzerako pausua emon bihar izan zeban ...eta kitto! aldizkariak. Kostatako pausua izan zan, kritika gogorak euki dittuan gaixa. Baiña UDK enpresaren itxieria erabagi zanian aprobe txatu zan pausorik nagusiña egitteko: langille batek, Iker Aranberrik, beran jardunan zati haundi bat eskinduko zetsan lan hori diseñatziari eta kudeatziari.

Orduan ikusi eban argixa aldizkarixaren lehelengo atari dinamikuak; astero aldizkarixa zintzilikatzia, elkarteko atal guztiak euren txokua eukitzia eta astian hainbat notizia zintzilikatzia denpora kontua baiño ez zan izan. Lan horrekin jarraitu eban Ekhi Belarrek, hurrengo pausua etorri zanera arte.

Ikerrek laga eban aldizkarixa, lan berri bat zekan, baiña aldizkarixarekin dakan

hartuemonak jarraitu eta webgune barrixa preparatzen genguazela jakinda, Facebook lehelengo eta Twitter gero erabiltzeko akuillu lana egin zeban. Sare sozialak daken indarra segiduan ikusi zan, erabiltzaille kopuruak gora egitten dau etenik barik. Eibarraren notizia bat sortu edo prentsaurreko bat jarraitzen dogun momentuan txiokatzen da gaur egun. Silbia Hernandez, erredaktore buruak gogoratzen daben moduan, "gaztiengandik gertuago gaooz, baiña gaiñera igarri dogu jentia gero eta gehixago eskertzen dabela. Orri kopuruak behera egin daben honetan, gero eta gehixago erabiltzen dogu eta jentian reakziñua gero eta hobia da webgunian informaziño osotua zintzilikatuko dogula azaltzen dogunian".

Eta etorkizuna hortik etorriko dalakuan gagoz; egixa da oin-diokan be publizidade sarrerak

oso txikixak dirala, horretarako papela aprobe txau bihar dogu oindiok be. Baiña baillara maillan behin baiño gehixagotan jardun dogu horren gaiñian berbetan, "iaz eskualdeko proiektua martxan jartzeko lan haundixa egin genduan, baiña ezin izan genduan aurrera egin. Proiektu komunikatibo osotua (aldizkari eta webgune amankomuna) eziñezkua da gaur egun Debabarrenian, baiña herri aldizkarixon arteko elkarlana ezinbestekua izango da datozen urtietan, interneti dagokixonez, bereziki", azpimarratu dau Koldo Mitxelena, aldizkari koordinatzailliak.



Ikasleak protagonista Euskararen Eguneko goizean



2013/12/03 #ipinaiurpegia

Martxa beatean, argazkiak bata bestearen atzetik ateratzen dihardute Jose Valderrey eta Felipe Lolola argazkilariek, Euskararen Egunaren harira udaletxeko patioan bertan prestatu duten argazki-estudioan. Goiz osan batetz ere ikasleak



PUBLIZITATEA



...eta kitto!
@etakitto
1988an sortutako herri aldizkaria. 1992an Euskara Elkartea.
Eibar · etakitto.com

4.725 TXIOAK 751 JARRAITZEN 1.066 JARRAITZAILEAK [Profila aldatu](#)

Txioak

- ...eta kitto! @etakitto Euskarak 365 Egun ekimena aurkeztu dute [fb.me/Rxg05xME](#) Aza 28 Zabaldu Erantzun Ezabatu Gogokoa Gehiago
- ...eta kitto! @etakitto Sostoaen 'Verdi Gala' zapatuan, 20.30etan, Coliseo Antzokian... [fb.me/6A5msgLUQ](#) Aza 28 Zabaldu Erantzun Ezabatu Gogokoa Gehiago
- ...eta kitto! @etakitto Hitzarmenaren negoziatioaren aldeko mobilizazioak deitu ditu LAB-ek [fb.me/1tDjxOwyw](#) Aza 28 Zabaldu Erantzun Ezabatu Gogokoa Gehiago
- ...eta kitto! @etakitto Abenduaren 5ean ospatuko ditugu ...eta kitto! aldizkariaren 25 urteak... [fb.me/3dldiaBRA](#) Aza 28 Zabaldu Erantzun Ezabatu Gogokoa Gehiago
- ...eta kitto! @etakitto Domekan San Andres Bertso jaialdia, 18.00etan Portalean... [fb.me/3CmuffgDr](#) Aza 28 Zabaldu Erantzun Ezabatu Gogokoa Gehiago

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Otaola Etorb. 27, 1. ezk.
Tel. 943 12 72 68
Faxa. 943 12 73 28
E-maila: izalan@izalan.com

IZALAN



ERREMINTA BEREZIAK

KALITATEA ETA PREZIOA USTEKABERIK GABE



EGUBERRI HAUTAN, ERABILI ELF OLIOA ZURE RENAULT EDO DACIA AUTOAREN AZTERKETA EGITEAN, ETA GOZATU EGUBERRI HAUEK INOIZ EZ BEZALA PRODUKTU-SORTA HONEKIN.

45 URTEZ ELKARLANEAN, ERAGINKORTASUNA LORTZEKO



ETA



Una marca de TOTAL

www.renault.es/posventa

RENAULT SERVICIOS

RENAULT DA ZURE RENAULTaren MAILAN DAGOEN BAKARRA

*9.000 unitate. Sustapen honek izakinak agortu arte iraungo du. Irakurri baldintzak.

Renault gozatu eta elfo



GAURSA

OTAOLA ETORBIDEA, 22. TEL. 943 82 09 74. EIBAR · www.gaursamotor.com · www.gaursaautoak.com



Gabonetako OTARRA

SALMENTA LEKUAK

- Arriaundi
- Bolintxo
- Depor taberna
- Ego Gain taberna
- El Corte Ingles
- ...eta kitto!
- Echetto - Urkizu
- Guridi taberna
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Kultu taberna
- La Golosina
- Maria Ospitxal
- Mugika harategia
- Ogi Berri - Urkizu
- Otegi harategia
- Udal Euskaltegia
- Untzaga prentsa
- Valenciaga
- Zubi-Gain taberna

OTARREKO PRODUKTUAK

- 40'ko 'OKI' telebista
- 'Misa' ezkur-urdaiazpikoa
- Solomo trufatua
- 'Don Bernardo Oro' gaztaria
- Salamankako ezkur-txorizoa
- Salamankako ezkur-saltxitxoia
- Ahate 'Delicass' foie-a
- 'Martiko' Confit ahate-izterra
- 'Sierra Monesterio' ezkur-solomo zorroak
- Ahate jamoia
- 'Julian Martin' askotariko iberikoa
- 'Vasco Navarra' ardi gazta
- 'Sierra Monesterio' ezkur-jamoi zorroak
- Micuit 'Rougie' Gourmet
- 'Dos Cafeteras' gazakiak
- 185 gramoko Chatka lata
- Pikillo piper saltsa. 278 ml
- 'El Barco' txokolata
- 'El Barco' txokolata zuria
- Madari osoa ardotan
- '1880' txokolata-almendra turroia
- 'La Higuera' piku bonboia
- 'Gorrotategi' teilak
- 'C. Gourmet' turroi gogorra
- 'C. Gourmet' turroi biguna
- 'C. Gourmet' trufa-turroia
- 'Soles de Gredos' hojaldretxoak
- 'Gyulian' itsas fruituak
- 'Cascajares' esne-bildots hanka
- Gin Tonic-erako espezia estutxea
- Champagne 'Bruno Paillard'
- Champagne 'Rosse Ruinart'
- Champagne 'Moet Chandon' estutxea
- Eskoziako 'Chivas Regal' whisky-a
- 'Matusalem' rona. 23 botila.
- 'Plymouth' Ginebra
- 'Qtonic' 4 tonikako Paka
- 'Conde Osborne' Coignac-a
- 'Level' Vodka
- 'Marques de Riscal' 150 Aniversario ardo beltza
- 'Albariño Martin Codax' ardo zuria
- 'Julian Chivite 150 aniversario' ardo gorria
- 'Gourmet Blancos D. O.' zainzuriak
- 'D. O. Gourmet Frasco' piperrak
- 'D. O. Catedral Frasco' alkatzofak
- 'Thes D origin Le Palais' estutxea
- Jamaicako kafea
- 'Elfos' trufa zuria olioa
- 'Elfos' trufa beltz olioa
- 'Gourmandises' kokoak
- 'L Himalayen' gatz larrosa
- 2 'Ibardin' confit
- 2 'Lafitte' confit

ZAPATUAN 19.30-20.30
T. Etxebarrian eta Calbetonen



EIBAR

Hotz ala bero, etxeraiño barixakuero

Urtian 42 ale kaleratzen ditu ...eta kitto!k; horri Gida Komertzialaren banaketia gehitu bihar detsagu. Eta guztietan ibiltzen dira, fin-fin, ...eta kitto!ko banatzailliak. Hotza, berua, eurixa bota eta bota... karro gorrixak kalia gora eta kalia behera ibiltzen dira, pegoraz-pegora, eskatu daben guztieri banatzeko prest. Gure lan prozesu osuan gogorrenetakua zalantza barik, eurak egindako lana ez bada egiten, alperrik aurreko guztia. Tinbria jo, atia zabaldu eta buzaira, eurak dakixe, iñork baiño hobeto nun eta zelan egiten dan barixakuetako biharra. Ehundaka gaztek jardun dabe aldizkarixa banatzen, danen izenak eziñ ipini, daneri eskertu biharra dakagu egindako biharra. Eskerrik asko, gaztiak!



HISTORIKOAK



8.050 ale inguru banatzen dira astero Eibarko buzoietan

10 zonatan daukagu banatuta herrixa

Bataz beste, 750 ale banatzen ditu banatzaile bakotzak

Banaketa izenduna da eta aldizkarira deittu eta izena emoten daben edonork jasoko dau aldizkarixa

Bataz beste, 3 ordu bihar izaten dira zona bakotxa banatzeko

13.00a inguruan ailegatzen da aldizkarixa Gertutik eta banatzaile gehixenak 15.00ak bueltan hasten dabe euren biharra



Milla barixaku (#Kittok25Urte)

Jende askok daka zer esana ...eta kitto!ren ibilbidian; horrek danok batzia eziñezkua da, baiña saiatu gara. Eta aurren, gure egunerokotasuna erabiltziaz gain, esku artian dakazun aldizkarixa erabiltziaz gain, bide-dokumental bat egittia be pentsau dogu.

Ane Urkiola zuzendaritzakidiaren esperientziaz aprobetxau eta 35 miñutuko dokumental xume bat egitteko aukeria izan dogu. Uda-

letzeko pleno aretuan egindako ekitaldixan aurkeztu dogu, baiña bertan egoteko aukerarik euki ez badozu, lasai, etakitto youtube-ko kanalian zintzilikatuko dogu gaur bertan.

Eta bixen bittartian, bideuan parte hartu dabon bakotxaren esal-ditxo bat ekarri dogu hona. Eskerrrik asko parte hartu eta lagundu deskuen guztieri!



AURORA BASKARAN

“Momentua zan; euserkia lortu egin bihar zan, kalian ez zeguan-eta”



PILI IBARGUREN / AINHITZE MUNIOZGUREN

“Proiektu komunikatibua baiño gehixago zala proiektu personal bat”



ANA AIZPURUA / JOSE LUIS GOROSTEGI

“Markeskuako buleguan beti zeguan jentia, batzuk sartu, beste batzuk urten...”



PATXI LEJARDI / ESTHER OTXANDIANO

“Publizitatia egitterakuan bildurra zeken: nik ez dakit zelan esan, zelan ipiñi...”



IKER ARANBERRI

“Erdi famelixa giñan; juaten giñan afaltzera, antolatzen genduan ‘kadeneta’...”



MARIA ARANO

“Nik dana, txirri-txirri, hartu antiejuak eta dana irakortzen dot”



AMAIA RODRIGUEZ

“Modu bat da herrittik gertuago sentitzeko, astian behin bada be”



OIER ARAOLAZA

“Funtzionamendu moduak aldatu eta garai berrietara egokitu behar gara”



SILBIA HERNANDEZ / KOLDO MITXELENA

“25 urte bete doguz eta ia, dagan situaziñuarekin, 30 betetzera aillegatzen garan”

euskara

lanean

etxean

lagunekin

kalean

eskolan

euskara

jolasean



Gipuzkoa

BERRIA

Asko dira gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 **innova**dental
CLINICAS



Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,
implanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [**Azpeitia**]
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com